




guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA



ERSISI, pertsoneri arreta eta babes hobea emateko programa, aktibazioa helburu duena / 2-4

Indarkeria matxistari buruzko bi prestakuntza saio antolatu dira hilabete hasierarako / 7

Dena prest igandeko Iturmendiko bizikleta ibilaldi berezarako. 09:30ean abiatuko da martxa / 17

Andra Mari ikastolaren VI. Binakako Lasterketa bihar 19:00etan Etxarri Aranatzan / 18

Dantza, musika, bertsoak eta artea uztartzen dituen ikuskizuna igandean, 19:30ean, Etxarrin / 23

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek premia egoera askori erantzuten diete. Lan esparruan sartzeko pertsonak gaitzeko atal bat dute zerbitzuek. Bestetik, enplegu bulegoek enplegu politikak aurrera eramateko guneak dira. Gizarte Eskubideen kontseilari Migel Laparra jabetua zen bi zerbitzuetan pertsonen inguruko informazio baliagarria kudeatzen zela, baina ez zutela elkarrekin lan egiten. Ondorioz, bere departamentuak Gizarteratzeko eskubidea indartzea, zerbitzuen integrazioaren bitartez programa (ERSISI ingelesez) martxan jarri zuen. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak eta enplegu bulegoak elkarlanean jarri ditu. Gizarteratze-proiektu hori Tuteran eta Altsasu, Olatzagutiko eta Ziordiko Gizarte Zerbitzuen eta enplegu bulegoen bidez abiatu zen 2016ko irailean. Laparrak iragarri du ERSISiren metodologia Nafarroa guztira hedatuko dela. Burundan proiektua aurrera eramaten buru belarri aritu dira Erkuden Imaz Larrea (gizarte zerbitzuak) eta Esther Calleja Leoz (enplegua). Aurrenekoarekin hizketatu gara.

Programaren aurretik Babestutako Gizarte Enplegua dago. Zer da?

Hor sartzen diren pertsonak dira lan merkatuan berez lan bat opatzen ez dutenak. Legean jaso denez, bermatutako errenta dute eta langabezian luze daramate. Horren bidez, pertsona horiei lana zer den jakinarazi edo orotarazi nahi zaie (ordutegia, arauak...). Ikastea da. Lanean hasi aurreko jarduerak dira, pertsonak lan merkatura sartzeko prestatzen dira. Prestakuntzan eragiten da batez ere; pertsonaren arabera, oinarrizko prestakuntza batzuetan eta okupazio-prestakuntzan bestela. Azken hori udalerrien arabera aldatzen da: Olatzagutian eta Ziordian hainbat lan egiten dituzte udalarendako. Altsasun, berriz, garbiketara eta lorezaintzara lanak egiten dituzte batez ere.

Departamentuak lan moldeak aldatzea erabaki du. Zergatik?



Erkuden Imaz Larreak ERSISirekin sortutako metodologia Nafarroa guztian errealitatea izatea gustatuko litzaioke.

Pertsonen arreta hobetzeko, metodologia aldaketa

ERSISI proiektuaren bidez gizarte eta enplegu zerbitzuak elkarlanean aritu dira, pertsonen arreta eta babes hobea emateko eta langabetuak lan merkaturako bidean aktibatze helburuz. Tuteratik eta Burundatik proiektua Nafarroara zabalduko da

ERSISiren bidez metodologia bat sortu eta probatu da. Eta definitzen ari gara zein pertsona izan behar diren bi zerbitzuen arreta jaso behar dutenak, Oinarrizko Gizarte Zerbitzua eta enplegu

bulegoa. Laparrak zergatik erabaki zuen hori? Jendea gizarte zerbitzuetara dator eta gure ikuspegiatik fokua bizi-eremu batzuetan jartzen dugu: etxebizitza, ekonomia, elkarbizitza

edota pertsonen gaitasuna. Enplegu bulegoan enpleguaz besterik ez dira aritzen. Gizarte zerbitzuetara etortzean guk bakarrik esparru batzuk ikusten ditugunez, enpleguarena... lan-

tzen dugu, lanean hasi aurreko jardura gisa enfokatuta.

Beraz, lanarekin zerikusia zutenak iristean enplegu bulegora bideratzen genituen. Han eskaeren berri ematen diete. Prestakuntza duten edo ez begiratzen dute. Hau edo beste egiteko esaten diete. Baina ez dakite pertsona horrek etxebizitzarik, diru sarrerarik duen edo ez. Ez dakite pertsona hori zergatik dagoen egoera horretan.

Laparraren iritziz gizarte eta enplegu sistemetan dagoen eza-gutza horiek partekatuko balira eta bi sistemek aldi berean arreta emanen balute, emaitza askoz ere aberasgarriagoa izan litzaiteke. ERSISIn kasu-kudeatzaileak deitzen gaituzte. Bata gizarte arloan aditua da, bestea enpleguan. Jendea bi ikuspegietatik hartu dugu. Estherrek enplegu ikuspegitik ari da eta ni gizarte arlotik. Horretarako, metodologia bat sortu du. Eta lan molde bat zehaztu dugu.

Oso mundu desberdinetatik zatozte. Nola egin duzue gizarte eta enplegu sistemak uztartzeko?

ERSISIk hainbat gauza ekarri ditu. Pertsonen arreta emateko modua da bat. Zuzeneko arretaz aparte, gauza gehiago daude hor. Ikuskapen taldeak izan ditugu. Hasieratik zortzi kasu-kudeatzaileak elkar ezagutzeko bildu gintuzten. Enplegu eta gizarte errealitateak zein diren ikusi genuen eta elkarlanean aritzen ikasi behar izan dugu. Proiektuak aurrera egin ahala eskualdeka elkartu gara, Nafar Lansareko eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako lankideekin ikuskapen taldea berria sortuz.

Bi mundu zarete.

Elkarlanerako ados jartze horretan zailtasuna izan da: zein zara zu niri nire lana nola egin behar dudana esateko? Nik enplegu gauza batzuk zalantzan jartzen nituen eta Estherrek gizarte arlokoekin gauza bera. Hori bideratzea erronka izan da.

ERSISIk kontingentzia-funtsa izan du baliabide gisa. Gozatua izan da. Hau da, egoki jotzen baguenen bakarren batek Iruñean



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com



Acrylcolor
SISTEMA
BERRIA
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

ikastaro bat egitea, kilometrajea pagatzen genion. Guk dirua aurreratu diegu eta kobratu dutenean bueltatu digute. Horrek ekarri du prestakuntza saioetara joateko eragozpen bat kentzea. Baliabideak baditu.

Kasu-kudeatzaile bikoteen osaketan profil bat eskatu behar da?

Ondorioetako bat izanen da profil egokienak zein diren zehaztea. Ez du edozeinek balio. Jendearekin lan egin behar da.

Uztartzean zu enplegu bulegora etorri zara lanera, ez alderantziz.

Proiektuaren gakoetako bat da hori. Enplegu bulegoan lan egin dugu, normalizatzaileagoak direlako. Parte hartu dutenetako % 90ek bermatutako errenta jasotzen dute eta % 10ek prestazioak. Azken horiek ez dute zergatik gizarte zerbitzuekin harremanik izan beharrik. Gizarte zerbitzuen egoitzara joanaraztea proiektuari kalte egin diezaiokkeen. Modu batera edo bestera, enplegu bulegotik denok pasa gara. Enplegu bulegora joateak ez du inolako kutsurik. Eta horretan asmatu da. Espazio faltagatik noizbait gizarte zerbitzuen egoitzara joan izan gara eta bakarren batek muturra okertu du.

Baina, hasieran, Esther gizarte zerbitzuen talde bileretan egon zen, eta ni enplegu bulegokoentan. Elkarri kontatzen geniona baino zerbait gehiago ulertzeko. Bata bestearen ekosistema ezagutzeko. Pentsamoldeak, informazioa nola trukatzeko den... Oso garrantzitsua izan da hori.

Babesik izan duzue?

Proiektuaren oinarri garrantzitsuetako bat Tokiko Enplegu Taldearen sorrera izan da. Proiektua zabaltzean eskualde bakoitzean halako bana sortuko da. Hemen Cederna-Garalur, Sakanako Garapen Agentzia, Sakanako

Lanbide Heziketa institutua, Sakanako Enpresari Elkarte, Burunda mendebaldeko Oinarritziko Gizarte Zerbitzua eta Altsasuko enplegu bulegoa daude. Hasierako deialdiari LABek erantzun zion ere.

Taldekideak elkar ezagutzeko izan zen lehena. Enpresek zein profil behar dituzten, institutuarekin batera behar horietara egokitutako prestakuntzak egin ahal izateko. Guztiok irabazle izatea da helburua. Esaterako, Aldakinekin interesgarria den prestakuntza egin da, kontratazio konpromisoa zuten.

Talde horren zeregina zein da?

Prestakuntza beharrak identifikatzea, ekonomia-ehunarenak, dauden langabetuen kontrataziorako dauden laguntzen berri eman, erantzun posibleak definitu, enpresetan prestakuntzak egin kontratazio konpromisoarekin...

Taldeak zer moduz hartu du proiektua?

Oso ongi. Hilabetero elkartzen dira. Taldearena Nafarroara zabalduko den gauzetako bat da.

ERSISik azken maila bat badu.

Metodologia, pertsonan zentratutako aktibazioa. Lehen gizarte eta enplegu sistematan lan egin zitekeen edo ez. Orain sistematizatu egin da. Laparrak dioenez, pertsonok eskubide bikoitza dugu: gizarte inklusioa eta bermatutako errenta. Bermatutako errenta badago. Gizarte inklusiorako eskubidea nola gauzatu? Bat da ERSISI. Nola? Kasu-kudeatzaile ekipoekin, aktibaziorako. Labur aritu gara. Guk pertsona bakoitzarekin, asko jota, sei hilabetez egon gara. Trinkoa izan da. Hasieratik aktibatu egiten dugu. Jendea martxan jartzen da. Gizarte zerbitzuetan, normalean, prozesuek bi edo hiru urte iraun dezakete. Batetik besterakoa tartea gehienez 15 eguneko da. Inklusioa modu aktiboan lantzen da.

Nola iristen da pertsona bat ERSISira?

Orain bukatuko den proiektu honetan erabaki zen erabiltzaileen % 90 gizarte zerbitzuetakoak izatea eta % 10 prestazioak jasotzen dituztenak. Datuak eskatu eta baldintzak betetzen zituzten artean aukeraketa egiteko zozketa egin genuen. Profil jakin batzuk aukeratu ziren. Txandaka sartzen joan dira, denak batera ez izateko.

Elkarlaneko lana zein pertsonekin egin behar den definitu duzue?



Gizarte eta enplegu sistemak, elkarlanean, pertsonen aktibazioan lan egiten dute.

Bai. Egin dugun lanketarekin orain badakigu zein profileko pertsonekin lan egin beharko duten etorkizunean kasu-kudeatzaileek, zein bideratu beharko diren gizarte zerbitzuetara bere kasua gehiago delako lanean hasi aurretikoa. Halako kasuetan, horiek ase ondoren ikusiko dugu enplegua lortzeko beste lanketaren bat egin daitekeen. Badaude beste profil batzuk argi eta garbi enpleguak direnak. Gizarte arloko ezer ez duten pertsonak daude, lana falta zaie soilik.

Pertsona batzuen kasuan enplegu arloak gizartearenak baino intentsitate handiagoa izanendu. Edo alderantziz. Gainera, egonen dira gizarte zerbitzuetan edo enplegu bulegoetan kudeatuko diren pertsonen kasuak. Horretarako, pertsonen gizarte errealitatearen "argazkia" egiteko gizarte-diagnosia sortu da. Bermatutako Errentaren Legearekin batera, Nafarroa guztiko zerbitzu guztiendako lantresna komun eta bateratua gisa ezarri da. ERSISI bidez lortu da SIDIS

erreminta hori. Dagoeneko gizarte zerbitzuetako lankideei prestakuntza saioak eskaini dizkiegu. Enplegu-diagnosirik ez zegoen eta sortu egin dugu. Guk erabiltzen dugu eta enplegu-bulegoetan ere hasi dira. Guk sortu eta geldituko den beste produktu bat da.

Helburua bateratzea da, denok gauza berdinez hitz egin dezagun. Eta denok gauza berei errepara diezaiogun. Horrela, zehaztuko dugu zein pertsona joan diren gizarte zerbitzura, zein enplegu-bulegora eta zein kasu-kudeatzaileengana. Bideratze edo bereizketa hori egiteko galdetegi bat osatzen ari gara. Bi sistemetako batera joaten den pertsonari 21 galdera erraz egingen zaizkio eta emaitzaren arabera baliabide batera edo bestera bideratuko da pertsona. Proiektuaren emaitza da.

Kasu-kudeatzaileak elkarrekin lanean segituko duzue?

Ez, bakoitza bere sisteman, bere bulegoan, baina metodologia berri batekin. Proiektua bukatzen eta ebaluazioa egiten ari gara. Baina agorrilaren aurretik guztia izanen denaren proba Iruñerrian egingen dute.

Metodologia baliagarria den jakiteko beste eskualdeekin konparatu duzue?

Nafarroako Unibertsitate Publiko (NUP) arduratu da horretaz. Burunda mendebaldeko Oinarritziko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean ari gara proiektua egiten. Baina hori Irurtzungo eta Etxarri Aranatz aldeko Mankomunitateekin konparatzen ari dira. Guk lan egin dugun pertsonen profilen antzekoak dituzten Sakanako beste bi mankomunitateetan. Proiektuaren aurretik eta ondoren galdetegi egiten da. Pertsonen ibilbidea ikusten da. ERSISioko beste bi Mankomunitateekin alderatu dira. NUPekoek ez dituzte azken emaitzak eman, baina aldea nabari dela diote. Proiektuan aritu diren pertzepzioa hobetuz gero da bi zerbitzuei banaka emandakoa baino. Enplegarritasuna neurtzen da eta horretan hobekuntza izan da. Baina ez dakigu unibertsitateak zein elementu neurtuko dituen.

Aktibazioan asko nabaritzen da. Labur aritu gara. Guk pertsona bakoitzarekin, asko jota, sei hilabete egon gara. Trinkoa izan da. Hasieratik aktibatu egiten dugu. Jendea martxan jartzen



da. Gizarte zerbitzuetan, normalean, prozesuek bi edo hiru urte iraun dezakete. Agian behar den jarraipena eskaintzen ez zaielako. Hemen maiz jartzen ditugu hitzorduak. Batetik besterakoa tartea gehienez 15 egunekoa da. Inklusioa modu aktiboan lantzen da.

Antolatu ditugun prestakuntzetara jendea etorri da. Prestakuntza orokorrak daude (etxeko ekonomia domestikoaren prestakuntza, telefono mugikorra lana bilatzeko nola erabili...). Baina pertsona bakoitzak premia batzuk ditu eta haietara egokitu gara, prestakuntza dela edo beste.

Proiektua bukatzen ari zarete, ezta? 2016ko irailean teoria lantzen hasi ginen. Urte baten ondoren hasi ginen jendea hartzen. Gari-laren 30ean bukatuko da. Ni pixka bat gehiago geldituko naiz baina bai.

Kontseilariak esan du eredia Nafarroa guztira zabalduko dela. Zergatik?

Egin dugun moduan ez du segituko. Hori argi dago. Nafarroara metodologia zabalduko da. Horretarako, gidaliburu bat egingen da. Enplegarritasun-diagnosia ere, enplegu zerbitzu guztiek diagnosi hori erabil dezaten. Gizarte sistemako SIDIS tresna baita. Nafarroako Enplegu Zerbitzuko Orientasare tresna zabaldu da dagoeneko. Orain bi sistemen arteko lotura egotea nahi da, informatika bidez egingen da. Tokiko Lan Taldeen eredia Nafarroa guztira zabalduko da.

Esku-hartzeren bat egiten bada enplegu bulegoetan izanen da.

Lege aldaketarik izanen da?

ERSISI proiektua Errenta Bermatuko legea garatzeko aitzakia izan da. Legea aldatuta dago. Gainera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eraldaketa egiten ari dira. Eskubide bikoitzagatik gizarte sisteman aldaketa egon den moduan enplegu arloan ere eraldaketa dago. Altsasuko enplegu bulego berrian aurretiko hitzorduarekin lan egingen da. Hori aldaketa da. Hori Burlatako Iturrondon egiten ari dira. Bulegora etorri eta ea zeinek hartzen nauen. Hori ez da horrela izanen. Nik hitzordua hartuko dut eta jakinen dut zein langilek hartuko nauen. Gizarte zerbitzuetan pertsonak erreferente bat duten moduan, enpleguan ere erreferenteak izan ditzatela. Hori da beste aldaketetako bat. Tratu indibidualizatua.

Bi sistemetakoe nahi dugu pertsonen egoeretan aldaketak egotea. Aldaketa horiek eragiteko gutxieneko ezagutzak behar ditugu. Ez bazaituz ezagutzen nola bideratuko edo lagunduko zaituz ongi? Aldaketekin erantzun bateratu bat ematen zaio pertsonari.

Demagun azarora dela eta enplegu bulegoko edo gizarte zerbitzuko atea jotzen dudala. Zer bide egingen nuke?

Ziurrenik bereizketarako galde-egitea egingen lizukete. Horren arabera erabakiko litzateke non indar egin. Gerta daiteke lan arloan indar egin behar izatea baina, aldi berean, bermatutako

errenta behar izatea. Askotan mendekotasun hori, ekonomikoa batez ere, ezin da gizarte zerbitzuetatik baztertu. Nik errenta tramitatuko nizuke. Zigilua jartzera etorri beharko zenuke. Baina ez nuke ezer gehiago egingen. Etxebizitza eta lanaren aurretiko prestakuntza egin beharko bazenu gizarte zerbitzuetan egin beharko zenuke hori. Eta hori lotu ondoren enplegu kontuekin hasteko aukera izanen zenuke.

Jendea batetik bestera?

Printzipioz, lehen baino gutxiago. Sistemak ez dira desagertuko. Kasu askotan bietara joaten segitu beharko du jendeak. Baina sistemetan ontzi komunikatuak egonen dira. Guk aukeratutako pertsonen inguruan enplegu bulegoetara eta gizarte zerbitzuetara iritzia eskatzen genien. Niretako oso harrigarria izan da zein informazio dagoen eta nola transmititzen den. Batean eta bestean pertsona beraren inguruko oso iritzi desberdinak zituzten. Batendako alferra zena, bestearendako pertsona saiaturia zen.

Proiektuan Esther eta biok aritu gara. Baina azken txanpan kasu mistoak egin ditugu. Ni enplegu bulegoko langile batzuekin osatu ditut kasu-kudeatzaile taldeak eta Estherrek gizarte zerbitzuetako lankideekin. Eta gizarte zerbitzuetako eta enplegu bulegoko langileak ere aritu dira. Sistemak nahasten hasi gara, aritzeko. Diagnosiak egin dituzte. Eta ezusteko batzuk izan dira batzuk lanean hastean. Batzuen eta besteen ikuspegiak osatu dira. Enplegu bulegoan dauden langileek ez dakite jendeak zergatik jokatzeko duen modu jakin batean, zer duen atzean. Edo gizarte zerbitzuetan harritu gara jende batzuk enplegu bulegora maiz joaten direla jakitean. Bakoitza gurean segitzen badugu ere, elkarlan horrek begiak pixka bat zabaldu dizkigu. Partekatzeak aukera izatea aberastasuna izan da. Horretaz jabetu gara. Baina bestearen lanarekiko ditugun aurreiritziak kentzea asko kostatzen da.

Honek guztiak unibertsitateko ikasketetan edo kontratazioen profiletan eraginik izanen du?

Espero dut. Helburua da dagoena eraldatzea. Aldatu beharrekoak horiek dira. Jasoko dugu. Eta gero neurriak hartzen dituztenen esku geldituko da gauzatzea edo ez.

Osorik: www.guaixe.eus



Altsasuko suhiltzaileen eta Foruzaingoaren ondoan dago enplegu bulego berria.

Enplegu bulego berriaren atak asteleheneetik zabalik

Aldaketagatik gaur 13:30ak arte arreta emanen du eta, astelehenean, 10:00etatik aurrera

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Altsasuko enplegu bulegoak astelehenean mustuko du bere egoitza berria. Leku aldaketa dela eta Nafar Lansaretik jakinarazi dute gaur bulegoa lehenago itxi eta astelehenean beranduago zabalduko dutela. Hori dela eta, ordutegi horretan lan eskaera berri behar duten pertsonak hiru aukera dituzte: 948 012 012 edo 012 telefonoetara hots egitea, www.empleo.navarra.es web orriaren bidez egitea edo Nafar Lansareren aplikazioaren bidez egin (Google Play edo App Store eskura daitezke).

Bulego berria kamineroena zen etxebizitza bloke baten beheko eta lehen solairuetan egokitu dute. Hara joateko parean duen supermerkatuaren aparkalekutik egin behar da. Eraikina berrirezko lanak azaroen hasi ziren eta 680.000 euroko aurrekontua izan dute, SEPEren modernizazio planarekin batera finantzatu dena. Izan ere, estatu erakunde horrek eta Nafar Lansarek espazioa partekatuko dute.

Espazio banaketa

Beheko solairuan SEPEren bulegoa, Nafar Lansareren bulegoa, haien itxarongelak, komunak, ezkaratza, erabilera anitzeko gela, gela bat, zuzendaritzaren bi bulego, orientatzailearen bulegoa, Wifi eta ordenagailu gunea, sarrera nagusia eta langileena daude. Azken hori erabiliz goiko solairura igotzeko aukera izanen da bulegotik pasa gabe, esaterako, arratsalde ikastaroak ba-

daude. Goiko solairuan itxarongela, bi bilera gela, prestakuntza gela, artxiboa eta biltegia eta bi bulego daude. Geletako batzuk prestakuntzarako, enpresei harrerara egiteko edota hautaketa prozesuak egiteko erabiliko dira. Eraikineko bigarren solairua momentuz libre utziko dute, etorkizunean bestelako zerbitzuak ezartzeko. Enplegu bulego berri sartzeko parean duen supermerkatuaren aparkalekutik egin behar da.

Eredu integrala

Burlatako enplegu bulegoaren ondoren, Altsasukoa izanen da eredu integrala eskainiko duen Nafarroako bigarren bulegoa. Enplegurako politika publiko aktibo guztiak eskainiko dira, prestakuntza eta enpresei arreta eskaintzeko baliabide gehiago izanen dira.

Aldaketa erabatekoa izanen da. Nafar Lansareko zuzendari kudeatzaile Paz Fernandezek argitu duenez, "tramiteak egiteko bulego kontzeptu batetik bizi guztirako lan aktibaziorako, prestakuntzarako eta orientaziorako kontzeptu batera pasako gara. Beti ere, lan-merkatuaren errealitatearen arabera, gaitasunen etengabeko egokitzapena eskatzen duena". Fernandezek gaineratu duenez, "jendeak administrazio arloko kontuak telefono edo Internet bidez egiteko aukera izanen du, bulegora joan beharrik gabe. Aurretiko hitzorduarekin etortzen diren pertsonen lan merkatura sartzeko gaitasunak hobetzeko zerbitzuak eskainiko zaizkie".



ASTEKOA

AINGERU MIKEO

Nora zoaz markesa galant hori?

Igandean botoa emateko eguna. Tankera guztietako antzerkia, oldarkeria eta gezurra bihurtu dute kanpaina goi mailako politikariek. Horietako askok urteetan egindakoaren beste muturrekoa ere eskaini dute lotsarik gabe. Udaletakoak eta, oro har, herri txikiagoetakoak zintzoago eta umilago ibili dira. Horrela, nekez helarazten dute mezu sinesgarriak, zenbaitetan, "barregarri" ere gelditzen dira. Halaxe bada, Sakanan ere izan dugu irudi mediatikoa eta bitxi samarra. Hain zuzen ere, Cayetana Alvarez de Toledo markesa tituluduna izan dugu Etxarrin bisitan, bi zinegotziz (murchantearra bata eta tuterarra bestea) aurkeztera etorria.

Cayetana, Fadrique Alvarez de Toledo II. Albako dukearen ondorengoa da. Hark, 1512. urteko uztailean, 15.000 kidez osatutako gudarostearen buru zela, Sakana zeharkatuta, Nafarroako konkista gauzatu zuen. Etxarriko plazan, Cayetanak aldarrikatu zuen Nafarroak "libertad" edo "sumision" jarreraren artean hautatu behar duela, 500 urte eta gero! Elite aristokratikoaren alabak, sona handiko unibertsitate bateko titulu gorenez jantzita eta hitz jario arinez, jauntxokeriaren eta espainolismo supremazistaren harrokeria azaldu eta horien aldeko aldarria egin zuen, XVI. mendeko konkistatzaile mentalitateari dagokion bezala. Hala ere, jakinen du nafarrok historikoki pertsona askeak izan garela, inoiz ez plebeioak edo sierboak. Menderatuak bai, baina ez garaituak. Horrexegatik, ez zitzaion inor atera alfonbra gorria jartzera, bere markesa tituluari burua makurtzera. Alderantziz, herritarrek gorotz alfonbra jarri zioten, txistuz eta eltze-burrunbaz lagunduta, ongietorria ez zela adierazteko. Izan ere, hauteskunde kanpainan etorri da, Etxarri oihartzun kutxa bezala hartuta, hemengoa gutxietsiz Espainia aldean botoak eskuratzeko helburuz. Ziurrenik, beste garai batean etorriz gero, elkarrizketarako jarrera zintzoarekin, elkarbizitzaz, gatazka politikoaren ebazpenaz, ekonomiaren indartzeaz eta aberastasuna banatzeaz, nafarren burujabetzaz, eta abarrez hitz egitera, beste ongietorri bat izanen luke. Baina, hori ez da Espainiako elite aristokratikoarengandik espero dena.

Nolanahi ere, hurrengo lau urtetako Nafarroako Gobernuaren, Udalen eta Europaren politikagintza ereduak jokoan dago: etorkizun koloreduna ala zuri-beltzekoa. Hortaz, igandeko hauteskundeetan boto bakoitza garrantzitsua izanen da, bestela, botorik ez emateak arerioari boto baten abantaila ematen dio.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00 baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NAN zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

OBJEKTIBOTIK

Jentil modernoa

Lakuntzan larunbateko bertako azokan izaki mitologikoz bete zen. Han ikusi ahal izan genituen bertako produktuen artean dantza eta zilipurdika.

Baina atentzioa deitu zigun jentil batek bere burua modernizatu nahi izan zuela eta zapatak jarri! Ez dakigu Lasterbidean-en korrika egiteko izango ziren.



GUTUNA

Eskerrik asko!!! Andra Mari ikastolako 50. urteurrena (Lakuntza)

MIKELATXO FLORES

LAKUNTZAKO ANDRA MARI IKASTOLAKO LAN TALDEAREN IZENEAN

Aurreko asteburuan, Lakuntzako Andra Mari Ikastolak gure lehen ikastola izan zenaren geletako atea ireki zituen. 50 urte hauetako argazki batzuen erakusketa eta, harekin bat eginez, ikastola komunitateko partaide

ezberdinei egindako elkarrizketak jasotzen dituen bideo baten proiektzioa izan ziren ikusgai. Bideoan, urte luze hauetan bizi izandako momentu eder eta gogorak era hunkigarrian islatzen dira.

Igandean, asteburua amaizteko, ikastolako partaide garen eta izan diren guztiok elkartuz argazki erraldoia egin genuen. Polita izan zen ikastolarekin modu batera edo bestera lotuta gauden lakuntzar guztiak biltzen gaituen argazkia egitea. Eguraldiak ahaztezina izango den argazki hau nahi genuen moduan egiten utzi ez

bazigun ere, oso eskertuta gaude bertaratu zineten guztiekin. Era berean, argazki erakusketara agertu zineten orori ere gure esker ona adierazi nahi dizuegu.

Eskerrik asko denoi! Gogoratu asteburu honetan Andra Mari ikastolak antolatutako binakako lasterketa izango dugula Etxarri-Aranatzen. Gainera, ekainaren 8an, ikastolaren 50. urteurrena ospatzeko egun handia izango dugu (omenaldiak, bazkari herrikoi erraldoia, kontzertuak...). Bertan egongo zaretelakoan agurtzen gara.



Ostiraleko Guaixe astekarian gutuna argitaratzeko:

- Asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira
- 1900 karaktere gehienez, hutsuneak barne
- Gutunak ezingo dira kapituluka bidali
- Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NAN zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa

Gutuna helarazteko: gutunak@guaixe.eus

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:

GK, Olatz Aldasoro Martinez de Ilardua
Miren Arregi Olivenza
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

María Luisa Zelaia

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketzailea:

Iune Trece Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Maria Saez de Albeniz Bregaña
publizitatea@guaixe.eus
eta Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Denda txikiek herria handi egiten dute

Mezu hori zabaldu du Irurtzongo Udalak herrian erosketak egitera gonbidatzeko egin duen kanpainarekin. Hala egiten dutenek udaberrian eta udazkenean sariak eskuratzeko aukera izanen dute. Aurreneko aukera martxan da

IRURTZUN

Joan den urtean bezala, herriko merkataritzaren aldeko kanpaina martxan jarri du Irurtzongo Udalak. Herrian erosteak dituen abantailak nabarmendu dituzte udaletik. Aurrena, autoa ez hartzeagatik lasaitasuna eta erosotasuna lortzen dela. Hurrena, herriko dendarien hurbiltasuna dago. Gainera, azken momentuko behar bat izanez gero, herriko dendak konponbidea izan daitezkeela azpimarratu du. Atzeneko arrazoia da Irurtzunen erosketak eginez, herriko bizitzan parte hartzearen sentipena sortzen dela.

Udal ordezkarien iritziz herrian erosiz abantaila gehiago lortzen dituzte irurtzundarrek: estres gutxiago izatea eta dendetan adeitasunik onena izatea. Gainera, erosketak herrian egiteak haren garapenean parte hartzea ekartzen du, baita irurtzundarren arteko erlazioak hobetzea ere. Horregatik, udaletik irurtzundarrak herrian erostera gonbidatu dituzte.

Eta abantaila horiek guztiak nahikoa ez eta pizgarri gisa sariak banatuko dituen zozketa pare bat antolatu ditu udalak. Zozketa bat Trinitateko festekin egingen da eta bestea sanmartinetan. Herriko dendetan gatzatzeko



Irurtzundarrak San Martin kalean. ARTXIBOA

balioko duten 50 euroko txartelak zozketatuko dira, guztira 1.250 euro saritan, antzerki ziklorako 10 abonuz eta Itsesia igerilekura 15 egunez joateko 5 abonuz.

Aurreneko zozketan garagarzaroaren 14ra bitartean herrian erosketak egiten dutenen artean zozketa egingen da. Saritutako enberri garagarzaroaren 16an emanen da. Udazkeneko zozketa lastailaren 18tik azaroaren 8ra izanen da eta irabazleen berri azaroaren 11n izanen da. Udaletik argitu dutenez, dendetan bertan azalduko dute nola parte

har daitekeen zozketan. Eta jakinarazi dute pertsona berak ezin izanen dituela bi abonuz eskuratu.

Aralarrera

Arakildarrak eta irurtzundarrak Aralarko santutegian garagarzaroaren 9an izanen dira. Autobusa antolatzen da, 11:30ean abiatuko dena. 12:30ean meza izanen dute eta 14:30ean bazkaria. Herri bazkarian izena emateko hilaren akabera baino lehen erosi behar dituzte txartelak udaletxeetan.

programak (9.000 euro). Horrekin batera, eskolaz kanpoko euskarazko jardueren gastuak (5.000 euro). Eta, azkenik, euskarazko jarduerak edo hizkuntza sustatzeko helburu dutenak, eskolaz kanpo eta edozein hezkuntza eredutan egiten direnak (2.000 euro).

Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean atzo argitaratu zen, eta horrela interesatuek eskaerak Altsasuko udaletxeko bulegoan aurkezteko 30 eguneko epea zabaldu da.

Udalak ikastetxeendako diru-laguntza deialdia egin du

Heldu den ikasturterako diru-laguntza deialdiak 25.000 euroko diru poltsa du

ALTSASU

Altsasun dauden ikastetxeei, irakaskuntza kooperatibei eta guraso elkarteei zuzendutako diru-laguntza deialdia onartu zuen Altsasuko Udaleko Tokiko Gobernu Batzordeak astelehe-

nean. Deialdian jasotzen denez lau ildorekin bat datozen egitasmoak lagundu daitezke diruz. Batetik, hezkuntza berrikuntzako proiektuak (9.000 euro). Bestetik, hezkuntzaren berrikuntzarako materialak hobetzeko



Isidoro Melero kaleko lanen ondoren Zumalakarregi aldean hasiko dira. ARTXIBOA

Udalak superabitarekin itxi ditu joan den urteko kontuak

Hurrengo bilkuran 155.000 euro balioko aurrekontu moldaketak bozkatuko dituzte

ALTSASU

Altsasuko Udalak atzo egindako bilkuran bere finantza egoera osasuntsua nabarmendu zen. Joan den urteko diru kontuak behin betiko itxita udalak 1.056.000 euroko superabita du, diru sarrerak gastuak baino handiagoak izan zirelako. Aparteko sarrera izan zituen udalak eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zergari esker eta, horregatik, itxi zuen urtea positiboan.

Hala ere, Madrildik ezarritako lege mugak direla eta udalak ezin du nahi beste diru inbertsioetara bidali. Joan den urtean diruzaintzako gerakinetik 400.000 euro bideratu zituzten inbertsioetara. Udal ordezkariak dirua honako inbertsioetara bideratzea erabaki zuten: kaleen zolatzea; Txiki Polita kaleko zolatadura eta Zelai kaleko zebra bide goratuak berritzea; Idertzegain kalean barandilla bat jarri; etxegabeen aterpe berria egokitzea; udal haur eskolako berogailu sistema berritzea; Iortia kultur guneko areto nagusian soinu ekipo berria jartzea; parte hartze aurrekontuen bidez erabaki zen karpamugikorra erostea; kultur guneko eta Zelandi kiroldegiko argiteria LED teknologiarekin ordezkatu; baso lanak; Balankalekuko iturria konpontzea eta udaletxean igogailua jarri, teilatua konpondu, berogailu sistema berri eta komunak egokitzea lanetarako.

Udalak aginduta gaur egiten ari diren zenbait lan ere diruzaintzako gerakinarekin finan-

tzatzen ari dira: argiteria publiko berritzeko eta LED argiak jartzeko lanen lehen fasea; Isidoro Melero eta Ermita kaleetako sareak eta zolatadurak berritzeko lanak eta heldu den hilean hasiko diren Amaia eta Bakea kaleetako eta Zumalakarregi plazako lanetarako.

Udalaren diruzaintzako gerakina guztira 3.488.000 eurokoa da. Beraz, udalak aipatutako inbertsioak egiteko nahikoa berme du. Hala, hurrengo bilkura batean aurtengo aurreikusitako inbertsio batzuk onartzea aurreikusten dute: Ondarria industrialdeko argiteria publikoko kanalizazioa berritzea (98.000 euro); Zelandi eskola margotzeko (25.000 euro) eta parte hartze aurrekontuetarako diru saila (40.000 euro).

Bestalde, udalak Amaia eta Bakea kaleetako sareak eta zoria berritzeko eta Zumalakarregi plazako zoria berritzeko lanak eman zituen atzo. Lanak Apeztexea Anaiak SL enpresak egingen ditu eta horien truke 1.192.227,79 euro (BEZ kanpo) jasoko ditu. Lanak garagarriean hasiko dira. Kaleetako lanak zortzi hilabeteetan despedituko dituzte eta plazakoa hirutan.

Altsasuko Udalak atzo egindako bilkuran udal Musika eta Dantza Eskolako 2019-2020 ikasturteko prezioak bere horretan uztea erabaki zuen. Bukatzean den ikasturtean estreinakoz errentaren arabera matrikula pagatu da eta sistema horri eutsi dio udalak.

Otsaportilloko leizea Memoria Historikoaren Toki izendatuta

Nafarroako Memoria Historikoaren Tokien Erregistroan inskribatu dute

SAKANA

Nafarroako Gobernuak Otsaportilloko leizea Nafarroako Memoria Historikoaren Toki deklaratzeko administrazio bidea bukatu da. Deklarazio horren ondorioz Urbasako leizea babestu, kontserbatu eta haren hedapena egin, memoriaren transmisiorako gune izan eta bakearen eta bizikidetzaren kultura sustatzen laguntzeko espazioa izanen da. Hala jasotzen baita Nafarroako Memoria Historikoaren Tokiei buruzko abenduaren 26ko 29/2018 Foru Legean. Nafarroako Memoria Historikoaren Toki deklarazioaren administrazio bidea despeditu bada ere, gora jotzeko errekurtsoa jartzeko aukera dago.

Otsaportillon, gutxienez, 14 gizonetako hil zituzten. Haietako 11ren gorpuzkiak berreskuratuta dira eta zazpi DNA proben bidez identifikatu dituzte. Han Jose Ramon Andaren eskultura jarri zuten, hainbatetan eraso egin diotena. 1980tik iraileko aurreneko igandean hildakoen omeneko ekitaldia egin da leizearen inguruan, senideek eta Etxarriko Udalak sustatuta. 2017an Sakanako 14 udalek hitzarmena sinatu zuten eta ordutik senideak eta udal horiek arduratzen dira iraileko ekitaldia antolatzeaz.

Mankomunitateak peoi-gidaria kontratatuko du

Sakanako Mankomunitateak, oposizio-lehiaketa bidez, peoi-gidari izateko lanpostu bat betetzeko deialdia egin du. Deialdian interesa duten pertsonen Altsasuko enplegu bulegoan aurkeztu beharko dute eskabide orria astelehena baino lehen. Lanpostua aldi baterako izanen da, txanda kontratu moduan. Hautapen-prozesua gainditzen duten pertsonekin Mank-ek lan-poltsa sortuko du, puntuazio ordenari zorrotz jarraituz. Lan poltsa hori bost urtez izanen da indarrean eta aurretik dauden lan poltsen gainera lehentasuna izanen du. Deialdiari buruzko informazio guztia www.sakana-mank.eus web orrian dago.

Familia langile lanpostua betetzeko deialdia Burundan

Burunda mendebaldeko Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak aldi baterako familia langile bat kontratatzeko deialdia egin du. Eta jakinarazi du oposizioa gainditzen duten pertsonekin lan-poltsa osatuko dela, lortutako puntuazioaren arabera, 5 urteko indarraldia izanen duena.

Burundako Mankomunitatearen deialdian interesa dutenek, euren eskaerak Mankomunitateak Altsasun duen egoitzan, Gartzia Ximenez kaleko 42 zenbakian (garbitoki eraikineko azken solairua), aurkeztu beharko dute asteazkeneko 14:00ak baino lehen. Han bertan ere deialdiari buruko informazioa jaso daiteke.

Berdintasun Zerbitzua lanean hasi da

Mank-eko zerbitzu berriak Altsasukoarekin batera bi ikastaro prestatu ditu: indarkeria matxistari buruzko prestakuntza da bat eta, bestea, indarkeria matxista jasaten duten emakumeekin lan egiten duten profesionalen zuzendutakoa

SAKANA

Sakanako Mankomunitateko berdintasun Zerbitzuak eta Altsasuko Berdintasun Zerbitzuek elkarlanean Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko Estatuko Itunaren baitan zenbait egitasmo aurreikusi dituzte, tartean prestakuntza saioak daude. 30era arte eman daiteke izena.

Indarkeria matxistaz

Sakanako ordezkari politikoei, alderdi politikoei, zinegotzi ohi, berri eta interesa duen guztiari bideratutako prestakuntza antolatu du legegintzaldi berriaren hasierarako. Ikastaroaren oinarria galdera bat izanen da: Zer egiten dugu herritarren ordezkariok indarkeria matxistaren aurka? Galdera horri erantzunez Susana Manzanedo aholkulariak indarkeria matxistaren arazoaren inguruko oinarritzko ezagutza ematea, bai teorikoa bai araudiaren ingurukoa. Horretarako hiru gai landuko dituzte: emakumezkoen aurkako indarkeriaren eta genero ezberdintasunaren arteko harremana; genero ezberdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko oinarritzko kontzeptuak eta tokiko entitateen lege betebeharrak eta udalen eskuduntzak. Ikastaroa garaga-



Izena emateko: berdintasuna@sakana-mank.eus edo berdintasuna@altsasu.net.

rrilaren 4an eta 11n izanen da, 17:00etatik 19:30era, Mank-ek Lakuntzan duen egoitzan.

Profesionalendako

Indarkeria matxista jasan duten emakumeak artatzen dituzten profesionalen zuzendutako prestakuntza da antolatu duten bigarrena. Hartan gizarte zerbitzu, EAI, osasun etxe, Foruzaingo, Berdintasun Zerbitzu, Lansare eta abarretan lan egiten duten langileei zuzenduta dago. Indarkeriaren inguruko Foru legearen agindu bat da jarduteko eta koor-

dinatzeke tokiko protokoloak lantzea. Behin eginda Nafarroako protokoloaren babesean egonen da. Prestakuntza saioen bidez jakin nahi da entitate bakoitza zein momentutan dagoen, eskaintzen dituen zerbitzuak eta funtzioak, bestelako entitateen arteko koordinazioa eta etorkizuneko Protokoloaren pertzepzioa aztertzea eta hausnartzea da. Saiotetan teknikari baten laguntza izanen da. Prestakuntza Mank-en Lakuntzako egoitzan izanen da garagarriaren 4an eta 11n, 12:00etatik 15:00etara.

GOIZERO 10:00-12:00
EGUN ON SAKANA

10:00 Prentsa eta eguraldia

10:15 Bateti bestia

10:20 Eguneko albisteak

10:45 Hizketan

11:20 Sarea: Aralar eta Karrape irratikoekin

11:55 Agurra

107.3 FM
beleixe

DENBORALDI BERRIAI

ZUZENEAN

ERREPIKAPENAK 14:00ETAN

ONLINE
ENTZUTEKO
GUAIXE.EUS



Euriaren ondorioz frontoian egin zuten festa.

Frontoia Sakanako eskolen festen aterpe bilakatu zen

Jendea poleki bildu zen Sakanako herri eskolak Sortzen ospakizunean, eguraldiagatik aterpean egin zena

ALTSASU

Euriak eta hotzak markatu zuten Sakanako herri eskolen festaren 11. edizioa. Eguraldi iragarpenak kontutan hartuta, Zelandi eskolako komunitateak egitaraua Foru plazatik Burunda frontoira eta Iortia kultur gunera lekual-

datu zituen. Jendea aldetik hasiera hotza izan bazen ere, azkar asko giro ederra sortu zen. Tailerren eta ihote erakustaldiaren ondoren herri bazkarian 375 bat pertsona elkartu ziren. Arratsaldeko kontzertuek eta dantza emanaldiek frontoia bete zuten.



Gozamenez gala hartu zuen ostiralean gazte gunek. UTZITAKOIA

Intxostiapuntako berriemailei agur esateko garaia

Gazte guneko berriemaileak izandakoa agurtzeko Gazteria Zerbitzuak ekitaldia prestatu du

ALTSASU

Intxostiapuntan gazte gunean egiten diren ekintzen berri emateko eta gazteen jakinminak ezagutzeko antena postua sortu zuen Altsasuko gazteria zerbitzuak. Sei gazte izan dira ikasturtean zehar Intxostiapunta gazte gunearen berriemaileak. Haien "inplikazioa, parte hartzea, konpromisua eta jarrerak" oso positiboak izan direla esan du gazteria zerbitzuak, eta lan hori "baloratzeko eta eskertzeko" gaur, 18:30ean, saria jasoko dute. Udalaren izenean Altsasuko gazteria batzordeko presidentea Julia Cid eta Altsasuko alkatea Javier Ollo izanen dira.

Gazte-berriemaileen lana Intxostiapuntan egiten ziren jardueren berri ematean. Gainera, feedback lana egiten zuten ere, izan ere, ikastetxeetan gazteen jakin-minak eta nahiak jasotzen zituzten. Horrela, asteazkenetan

Altsasuko gazte gunean biltzen ziren eta komunean jartzen zituzten eskaerak.

Ikasturtean zehar Altsasu Bigarren Hezkuntza Institutuko eta Sakana Lanbide Heziketako institutueta ordezkarri bana eta Iñigo Aritza ikastolako eta Korazonistaseko bina ordezkarri aritu dira berriemaile lanak egiten. Orain ikasturtearen bukaterekin bost gazte hauen jarduna amaitzeko garaia heldu da, eta datorren ikasturtera begira "jarraritzea" nahi du gazteria zerbitzuak. "Balio handiko eskarmentua izan delako".

Berriemaile proiektua aurten aurrera eraman dute lehenengo aldiz, eta hurrengo astean ikastetxeekin balorazioa egingen dutela jakinarazi dute gazteriatik. Berriemaileak, ikasleak eta irakasleak proiektua aurrera eramaten laguntzeagatik eskertu nahi dituzte.

Lomce proba ez egiteko baimena emateko deia

Andra Mari Ikastolako LH 6. mailako ikasleek egin beharko dituzte ostegunean eta ostiralean. Ikastolako enpresa batzordeak familiei eskatu die ikasleei baimena emateko proba ez egiteko. Gainera, ikastola berriaren sorreran kontzentrazioa deitu du ostegunerako, 08:40an. Ikastolako komunitateari hartan parte hartzeko gonbidapena luzatu diote. Bestalde, Hezkuntza Departamentuari zuzenduta adierazi dutenez, "Nafarroako Hezkuntza komunitateak ez duela LOMCeren flexibilizazio ezta moratoriarik nahi. Behingoan gure Hezkuntza Sistema Propioaren bidean urratsak eman dituztela".

Urrunketaren eta dispertsioaren kontrako kilometroak

Lasterbidean atletismo proba Arbizuk eta Lakuntzak hartu zuten igandean, *Leisterka denak itxaa!* lelopean. Azaldu zuten, lasterketan Jon Gurutz Maiza Artola preso etxarriarraren gertukoek eraman zuten aurreneko dortsala. Larriki gaixo dauden 21 presoetako bat dela gogorazi zuten. Preso horiek etxean egon beharko luketela nabarmendu zuten. Etxarriko gainontzeko bost presoak eta Altsasuko auziagatik preso daudenak ere gogoan izan zituzten. Guztiak "lehenbailehen aske" egotea eskatu zuten. Gogoratu zuten asetero senide eta gertukoek presoak bisitatzeko bidaia egiten dituztela oraindik.

Eskolak izena aldatu du

Arbizukoak orain arte Arbizuko Ikastetxe Publikoa / Escuela Publica de Arbizu izena izan du. Eskola Kontseiluak izena aldatzeko proposamena egin zuen eta Arbizu Udalak onartu zuen. Nafarroako Gobernuak berretsi duena. Izen berria Arbizuko Herri Eskola da. Hori ikastetxe berriarekin batera mustuko dute Arbizon, Tellerietako eraikin berrian.





Apirileko hauteskundeak Etxarri Aranatzan. ARTXIBOA

Hauteskunde hitzordu hirukoitza

Europako Parlamentua, Nafarroakoa eta udalak berritzeko hauteskundeak egingen dira igandean. Herri txikietan ere kontzejuak berrituko dituzte

SAKANA

Hilabeteko aldearekin, atzera ere, herritarrak boto ematera deituak daude. 15.500 bat sakan-darrekin izanen dute boto eskubidea erabiltzeko aukera igandean. Sakanan 19 hauteslekuk 09:00etan zabalduko dituzte ateak eta haietan botoa emateko aukera 20:00etaraino izanen da. Guztira 32 hauteskunde mahaie-tan eman dezakete botoa sakan-darrek. Mahai horietan hiruna hautetsontzi izanen dira, bata Europako hauteskundeetan bo-toa emateko, bestea Nafarroako Parlamentua berritzeko eta, azkena, udalak berritzeko. Euro-parako hautagaiak aukeratzeko botoa urdin kolorekoa da. Nafarroako Parlamenturako botoak sepia kolorekoak dira eta udalak berritzekoak, berriz, txuriak.

Sakanako 15 udalerrietatik 13etan horrela izanen da. Salbuespena Irañeta eta Iturmendi dira. Han ez da udalerako hautagaitzarik aurkeztu eta, beraz, bi parlamentuak berritzeko hautetsontziak besterik ez dituzte izanen. Kontzejuak berritzeko beste hautetsontzi bat jarriko da eta han eman beharreko botoak berde kolorea du. Etxarri Aranatz kasuan hala izanen da Lizarragabengoako herritarrek botoak eman behar dituztelako.

Irudi bitxiak sortuko dira Arakilgo eta Ergoienako hauteskunde mahaietan. Guztietan parlamentuetako eta udaleko hiru hautetsontziak izanen dira. Hiriberriko mahaiaren kasuan horiez aparte sei kontzejuetakoak ere izanen dira, guztira bedertzitzi hautetsontzi. Izurdiagan zor-tzi izanen dira eta Ergoienan sei.

Sakanako hauteskunde mahaiak

Udalerria	Mahai kopurua	Mahaien kokapena
Arakil	2	Hiriberrir Arakilgo kontzeju-etxe-ko bulegoa
Kontzejuak		
Ekai		Hiriberrir Arakilgo kontzeju-etxe-ko bulegoa
Etxarren		Hiriberrir Arakilgo kontzeju-etxe-ko bulegoa
Etxeberri		Izurdiagako gizarte-aretoa
Egiarreta		Izurdiagako gizarte-aretoa
Errotz		Izurdiagako gizarte-aretoa
Izurdiaga		Izurdiagako gizarte-aretoa
Satrustegi		Hiriberrir Arakilgo kontzeju-etxe-ko bulegoa
Urritzola		Izurdiagako gizarte-aretoa
Hiriberrir Arakil		Hiriberrir Arakilgo kontzeju-etxe-ko bulegoa
Ihabar		Hiriberrir Arakilgo kontzeju-etxe-ko bulegoa
Zuhatzu		Hiriberrir Arakilgo kontzeju-etxe-ko bulegoa
Irurtzun	2	Eskola
Irañeta	1	Udaletxea
Uharte Arakil	1	Eskola
Arruazu	1	Kontsultategia
Lakuntza	2	Udaletxe-ko batzar gela
Arbizu	1	Udaletxe-ko batzar gela
Ergoiena	1	Udaletxea
Kontzejuak		
Unanu		Ergoienako udaletxea
Dorrao		Ergoienako udaletxea
Lizarraga		Ergoienako udaletxea
Etxarri Aranatz	5	Udaletxea
Kontzejuak		
Lizarragabengoa		Etxarri Aranazko udaletxea
Bakaiku	1	Auzoa
Iturmendi	1	Auzoa
Urdiain	1	Udaletxea
Altsasu	10	Gure Etxea eraikina
		Intxostiapunta gazte gunea
		Iortia kultur gunea
		Sakana Lanbide Heziketa institutua
Olatzagutia	2	Eskola
Ziordia	1	Auzoa
Guztira	32	

ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNU ORDEZKARITZA



Emaitzak ikusgai izanen dira egunean.

Hauteskunde gaueko datuak GUAIXE.EUS atarian

www.guaixe.eus bidez Sakanako emaitzen berri izanen duzu. Datu historikoak eskura daude

SAKANA

Hauteskunde eguna da igandea. Deialdi hirukoitza egin da etzira-ko: Europako Parlamentua, Nafarroako Parlamentua eta udalak berrituko dira. 1.380 bat sakan-darrek, gainera, euren herrietako kontzejuak, 15ak, berritu behar dituzte. Guaixek hauteskunde gauaren jarraipena egingen du GUAIXE.EUSen bidez. Hautetsontziak ixten diren unetik aurrera, emaitzak jaso ahala, Sakanako datuak bilduko ditu webgunean, herriz herri. Bestalde, GUAIXE.EUS Interneteko atarian orain arte udal hauteskundeetako buruz bildutakoaren berri jasotzen duen atal berezi bat dago.

Datu historikoak eskura

GUAIXE.EUSen igandeko emaitzak emateaz aparte, orain arte hautetsontziekin izandako hitzorduetako datu historikoak jaso ditugu. 1977an Espainiako Kongresurako egin ziren hauteskundeetako datuetatik hasita gaur egun arte Sakanan izan diren hauteskundeetako datuak kontsultat daitezke, hain zuzen ere. Kontsultak herriz herri egin daitezke interneteko atarian. Eta, horrekin batera, bi hauteskundeetako emaitzak konparatzeko aukera ere ematen du webgunean.

Navarra Suma, iruzurrezko Aldaketa horri erremedioa paratzeko



Duela lau urte "Aldaketaren gobernu" boterera iritsi zen. Horretarako esan zuten "premiazko egoera sozialean" geundela, aurreko gobernuak Navarra-Arena bezalako obra faraonikoei ekin ziela, zor publikoa neurririk gabe igoarazi zela eta alfonbrak igoarazi beharko lirakeela. Helburu horiei begira zenbat eta lau indar politiko (horietarik bakoitza alderdi koalizioa) bildu behar izan ziren UPN kanporatzeko ("Upn Kanpora" izan zen hormetan ikusi ahal izan zen leloa, posible balitzan egozteko Nafarroako lehen alderdia).

Zertan geratu dira gauzak lau urte hauek igaro eta gero? Espainian langabezia erori da zortzi puntu; Nafarroan, lau; mundu orok onartzen du Navarra-Arena egokia dela, zor-publikoa apenas ez da jaitsi hazkunde aroa gora behera. Eta alfonbrei dagokienez... ez kondenaturik ezta inputaturik ere. Gezur hutsak ziren.

Zergatik aurkezten gara elkarrekin UPN, PP eta

Hiritarrak Foru hauteskunde hauetarako? Gezurretan oinarrituriko iruzurrezko Aldaketa horri erremedioa paratzeko. Nafarroak behar du azpiegituretan inbertitzen duen gobernu bat; gure gazteek etorkizun bat izan dezaten hezkuntza era sektariorik gabe kudeatzen duen gobernu. Nafarroak behar du halaber lana sorrarazteko enpresak erakartzen dituen politika fiskal bat; kontsumoa berreskura dadila hiritarroi zergak jeistarazten dizkien politika. Azkenik, Nafarroak behar du bake linguistikoa, nafarrok aurrez aurre jar ez gaitzana, libertatea eta aniztasuna errespetatu daitezen eta euskara susper dadila aintzat hartuz euskaldunok eskualde bakoitzean dugun pisu demografikoa.

Leporatzen zaigu gure Foruen eta autonomia fiskalaren kontra doazenekin aliatu izana. Ez da egia. Gure arteko akordioak argi eta garbi uzten du gure eskubideekiko errespetua. Gure Foruak beti izan dira solidarioak. Ez dira inolaz ere dagokigun baino gutxiago ordaintzeko aitzakia. Gu ez gara inoiz izan EAJ bezalakoak, EAEn egun batean 850 milioi ordaintzea eskatzen dutenak eta beste egun batean 1300 milioi besterik ez, hau enkantea bat bailitzan.

Etorkizunak azken lau urte hauetako bidetik jarrai dezan



Duela lau urteko Nafarroako Foru Hauteskundeak historikoak izan ziren. Lehen aldiz, ordurarte Foru arduetatik baztertuak ziren indar politiko abertzale eta aurrerakoiek Parlamentuaren gehiengo lortu zuten eta, honen ondorioz, GEROA BAI koalizioak Gobernu ezberdin bat zuzentzeko ardura eta ohorea izan dugu.

Nafarroako erakundeak beste bide batean kudeatu daitezkeela frogatu dugu lau urte hauetan, UPN eta PSN-ren eredua atzean utziz.

Nafarroako autogobernua hobeto defendatu izan dugu Estatuarekin dugun Hitzarmen Ekonomikoaren eguneratzea adostuz eta nafar herritarrentzat ehunka milioi euro berreskuratuz. Foru kontuen kudeaketa ere txukuna izan da eta aurreko gobernuaren aldetik jasotako herentzia kaxkarrari buelta ematea lortu izan da.

Zerga erreforma mailakatu eta bidezko bat sustatuz arlo sozialean inbertsio kopurua handitzeari ekin diogu eta Hezkuntzan, Osasungintzan edo Eskubide Sozialean aurreko gobernuen murrizketei buelta eman diegu.

Garapen ekonomikoa azpiegitura erraldoietan baino pertsonetan erdiratu daitezkeela frogatu dugu, Nafarroako eskualde ezberdinetan eragileekin batera garapen planak landuz eta martxan jarritz.

Lau urte hauetan GEROA BAIk Nafarroako aniztasuna balore bat bezala ulertu izan du bere kudeaketan: Gizon eta Emakumeen arteko berdintasun lege berria; LGTBI eskubideetan aurrerapausoak; euskararen normalizazioan eremu mistoa handituz; Kultura eskubideak bermatzeko legeak sustatuz eta, oro har, ehun lege baino gehiago onartu dira.

Azken legegaldi honen ondorioa ez da izan inondik inora eskuinak iragarri duen apokalipsia: langabezia edo pobrezia tasak Nafarroan Estatuarenak baino dexente baxuagoak dira; Nafarroaren zorra txikituta, eta abar. Eta 2019-2023 aldirako 350 neurri proposatzen ditugu autogobernua, garapen jasangarria, berdintasuna edo iraultza digitala lortzeko.

Datorren maiatzaren 26an Nafarroarentzako beste ure historiko baten aurrean gaude eta arduraz jokatzeko eskatzen dizuegu. Uxue Barkos eta GEROA BAiren aldeko bozka, etorkizunak azken lau urte hauetako bidetik jarrai dezan bermatzeko.

Sakana Geldiezina!



Gure helburuak ezin argiagoak dira Nafarroa osoan zein Sakanan bertan. EHBilduren lehen helburua Nafarroan 2015an Erregimena instituzio nagusietatik ateratu zituen Aldaketa berriro garaile izatea da. Bigarren helburua, EHBildu izatea aldatetaren lehen indarra.

Helburu horiek ditugula diogu, baina botoak eta lortuko dugun ordezkartza instituzionala tresna batzuk besterik ez dira. Benetako helburu zein arrazoiak honako hauek dira:

- 1) Maiatzaren 26an Nafarroan jokoan dagoena da 2015ean hasitako bidean urrats gehiago egitea ala iraganeko garai ilunetara itzultzea. Nafarroa duina, demokratikoa eta justuagoa eraikitzea ala Erregimenaren autoritarismoaren pean bizitzea, mendeku gosez itzuliko litzatekeen Erregimena hain zuzen. Gure determinazioa eta konpromisoa erabatekoa da aldaketa berriro garaile ateratzeko.
- 2) Aldaketa sakonagoa, ausartagoa, behar dugulako. Horretarako ezinbestekoa da EHBildu indartsua, aldatetaren lidergoa izatea, lidergo konpartitua garatzea.
- 3) Ausardia genioen, aldaketa sozial sakonagoak egiteko, euskararen lege berria egiteko, Madrilen aurrean gure soberania defendatzeko, preso politikoen eskubideen defentsan aritzeko.

4) Iraganeko inertzia batzuekin bukatu behar da. Zentzurik gabeko azpiegitura erraldoi eta diru zahutzailerik ez dugu behar. AHT proiektua bertan behera gelditu behar da, horren ordeztren soziala bultzatuz, eta horrekin batera garraio publikoaren plan integrala Sakana osoarentzat.

5) Bertan bizi, bertan lan egin. Sakanako Plan Estrategikoa bultzatu behar dugu, tokiko garapenean oinarritutako enplegu duina sortzeko. Sakanak krisi larria pairatu du, baina badu inteligentzia kolektiboa, indarra eta determinazioa aurrera egiteko. Sakanako gizartearekin, ingurumenarekin, balore, kultura eta historiarekin bat datorren plan sozioekonomiko osoa asmatuz, berrituz eta garatuz aurrera aterako gara. Krisiaren irtenbidea soziala eta jasangarria izan behar delako, gizarte justuagoa, aurreratuagoa eta demokratikagoa izango bada.



Egiaztatu dugu. Bai, ahal da!



Podemos Ahal Dugu Orain dela 4 urte aurkeztu zen Nafarroako gizartearen krisi iruzurraren eraginez milaka nafarri kendu zitzaizkien eskubide eta askatasunak berriro konkistatzeko tresna gisa,

eta ordura arte geneukan sistema politikoari amaiera eman genion.

Gure alderdiaren eta gure lurraldearen ikuspuntuak, ugariak eta askotarikoak, integratzen jakin izan duen proiektu bat eta noski, behar den moduan, berdintasuna ziurtatuko duen zeharkako ikuspegi batekin.

Hitzordu berri bat dugu hautetsontziekin, eta berriro ere erabakigarria izango da. Horregatik, hemen azaltzen dugun 2019-2023 urteetarako lan programatikoa oso garrantzitsua da. Alternatiba serioa eta irmoa aurkezten dugu. Askotan esan ziguten

ezin zela baina... Bai, ahal da! Egiaztatu dugu. Eta, horregatik gaude hemen gaur eta orain.

Lau ataletan sakondu nahi dugu:

1. Demokrazia babestea: Jendearentzako erakundeak aldarrikatzen jarraitzen dugu, egunero herritarren subiranotasuna agertuko dutenak. Beharrezkoa da erakunde publikoetan nahikoak eta benetakoak izango diren mekanismoak ziurtatzea gardentasuna eta etika bermatzeko, eta, horrez gain, erakunde horiek jendeak espero duenaren mailan egotea.

2. Horizonte berdea eta ekonomia berdea: pertsonen zerbitzura egongo den

ekoizpen-eredu berri bateranzko premiazko trantsizioa. Krisi ekonomikoak erakutsi zigun munta handiko arazoan aurrean gaudela eta ezingo direla konpondu politika ekonomikoan aldaketa sakon bat egin ezearan. Horregatik onartzen dugu konponbideak ikuspuntu ezberdinak eta sormena eskatzen dituela. Inoiz mahai-gaineratu nahi izan ez diren ikuspuntu berriak, goian daudenei ez zaizkielako inoiz interesatu.

3. Horizonte morea eta zainketen ekonomia: politika patriarkala izateari uzteko prozesu bat aldarrikatzen dugu, zeren eta, arazo estruktural bat denez gero,

genero-desberdintasuna gizarte-maila eta bizitzako eremu guztietan errepikatzen baita; giza eskubideak unibertsalak izatea lortzeko eragozpen nagusia, alegia.

4. Herritarren eskubideak eta bermeak: eskubideek benetakoak izan behar dute eta bermatuta egon behar dute, horrela ez bada, ez baitira eskubide. Lorpenez ari gaitezke jada, neurriak norabide zuzenetik bideratu ahal izan direla esanez has gaitezke eta, izan ere, lege-aukera zabal bat dago hori babesteko. Eskubide sozialak eta eskubide horiek gauzatzen dituzten zerbitzu publikoak blindatzearen alde egiten dugu apustu.

Izquierda-Ezkerraren proposamenak



Gure programan, ezkeriarren programan, ongizatea da nagusia. Azken legegintaldia soziala izan da, aurrekontua hedatu egin delako eta zerbitzu eta politika publikoen hazkundea eta sendotzea nabariak izan direlako. Eta hurrengo

legegintzaldian, beti bezala lan egingo dugu ondare eta zerbitzu publikoak aldarrikatzen.

Hona hemen, hurrengo legegintzaldirako prestatutako zenbait ideia:

1. Aldaketa Sozialaren lehentasuna mantentzea, emandako hazkundea mantenduz eta sendotuz: hezkuntza, osasuna, eskubide sozialak, enplegua, ingurumena eta etxebizitza dira lehentasunak.

2. Gastu soziala handitzeko, enpresa handiei zerga gehiago. Sozietateen gaineko zerga moldatu, diru gehiago biltzeko. Hori da: enpresa handientzako Sozietateen gaineko zergan

ezarpeneko tasa %28tik %35era handitzea.

3. Nafarroan Banku Publikoa sortzea. Nafar guztiei oinarritzko finantza-zerbitzuetara heltzeko aukera bermatuko dien kutxa publikoa ezarri beharra dago.

4. Enpresen laguntza, diru-laguntza eta onura fiskalen araudia aldatzea, eta horien ordezkari produktzioaren eta enpleguaren deslokalizazioa ekiditeko berme zorrotzagoak ezartzea. Horretaz gain, diskriminaziorik gabeko Enplegurako Eskubideak babestea eta sustatzea.

5. Gobernu zentralari murrizketa sozialak errazten dituen estatu legeria indargabetzea eta zor eta defizit helburuak zuzentzea.

6. Lana bermatzea. Inor ez dadin bi urtetik gora

langabezia egon lan eskaintzarik jaso gabe.

7. Egoera ezegonkorrean dauden langileentzako diru sarrerara nahikoa bermatzea, hau da, langileen pobrezia aurre egiteko kopurua 300 euro artekoa izan da hilean, familiaren diru-sarreraren arabera.

8. Nafarroa mailako energia berriztagarrien operadore publikoa.


9. Doako 0-6 urte bitarteko hezkuntza. Ziklo honen onura sozialak egiaztatu egin dira, eta bizitza pertsonala, familiarra eta laboralaren uztartzea errazten da.

10. Euskararen Lege berria eta Euskara sustatzeko Akordioa garatzen jarraitzea.

11. Nafarroako Autogobernuaren defentsa eta sakontzea.

Erredakzioaren oharra

Nafarroako Parlamentuan ordezkari izan diren sei alderdiei edo koalizioei eskaini diegu Guaixen idazteko aukera. Gure gonbidapenari baiezkoa eman eta jasotako erantzunak dituzu hemen irakurgai.



BIL TOKI
TABERNA • JETETXEA

948 467 876 · Altsasu

kaxeta
liburudenda / paperdenda

Fotokopiak
liburuak
jostailuak
opariak
eskulanak

Inprimagailuendako
kartutxoak

948 460 477
Larrañeta 19, Etxarri Aranatz

sorgiñak
TABERNA

LAKUNTZA

948 576 357

Konfiantzazko aseguratzailea orokorra!

MAPFRE

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM

948 563 354
jimazpr@mapfre.com
San Juan 48 · ALTSASU

ElkarMaker eguna hartu zuen Iñigo Aritzak

Teknologiaren arloan, ikasleengan ekintzailtza-jarrerak sustatzeko proiektua aurkeztu zuten. Ikas mailen arteko kooperazio lana izan da, “pentsatu, ideiak sortu eta diseinatu filosofiari jarraituz”

BURUNDA

Gurasoei ikastolan aurkezpena eginda, hala borobildu zuten ElkarMaker proiektua Iñigo Aritzak ikastolan asteartean. Sonia Lizarraga Ondarra teknologia irakaslea eta pedagogia zuzendariak esan digunez, “STEM (zientzia, teknologia, ingeniari-tza eta matematika) ekimenen testuinguruan kokatzen da eta zientzia bokazioa bulkatzea du helburu”. Lizarragak azaldu digunez, Ikastolen Elkartearen eta Mondragon Goi Eskola Politeknikoaren hitzarmenaren fruitu izan da proiektua, “Elkar-Maker, bi hitz dira: elkarrekin eta sortzaile. Elkarlanean egindako lan bat da, Ikastolako Lehen Hezkuntzako (LH) 3 mailako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) 3. mailako eta Mondragongo Industria Diseinuko 2. mailako (ID2) ikasleek parte hartu dute”. Proiektu pilotua zortzi ikastoletan garatu dute eta Nafarroako bakarra izan da Burundakoa.

Ikasturte hasieran abiarazi zuten proiektua. Lizarragak pausoak azaldu dizkigu: “Aurrena, LH3ko ikasleek (8 eta 9 urtekoak) haien ametsetako makinaren marrazkia egin zuten gelan. DBH 3ko ikasleek marrazki horiek kontuan izanik maketa bat erai-



Industria Diseinuko ikasleak ikastolakoiei prototipo bat erakusten. UTZITAKOIA

ki dugu teknologia saioetan. Eta, azkenik, ID2ko ikasleek prototipoa egin dute. Garapen bat izan da, pentsatu, ideiak sortu eta diseinatu filosofiari segituz”. Egitasmoak ikasleengan sormena, arriskuak hartzeko gaitasuna, sortzaile izatea eta konstantzia sustatzea zuen helburu.

Lan moldea

Ikasle txikienei teknologia zer den azalduz hasi zuten proiektua: “gizartearen arazoei konponbidea emateko gauzak, makinak, objektuak asmatzen ditugu. Haiek

euren inguruan dituzten arazoez edo egoera deserosoak konponatzeko egin zezaketenaz hausnartu zuten”. Iraileko goiz batez DBH3ko 5 ordezkariak eta ID2ko 4 ordezkariak bisita jaso zuten eta ikasle txikiak, banaka euren marrazkiak egiten hasi ziren eta ikasle helduagoak elkartzen zitzaizkien zertan ari ziren galdezka, eta lagunduz. “Gero taldeka jarri ziren, hausnartu eta taldeko marrazki bat aukeratu zuten”.

Hala bost marrazki aukeratu zituzten. Bolumena izena zuenak

bolumena neurtzeko makina zen, “bolumen handia zegoenean, argi batzuk pizten zitzaizkionak”. Ura proiektuaren bidez itsasoko urari gatz kentzeko makina bat zen. Kameleoi itxura zuen beste bat arkatx bat zen. Katilua eman ez punta ateratzen zen eta gero barrura sartzen zen. Dinobizikleta mugikortasun arazoak dituzten pertsonen laguntzeko motor bat zuen ibilgailua. Goian dauden edo iristen ez garen lekuetatik gauzak hartzeko robota ere aukeratu zuten. Aurkezpen guztiak egin ondoren bi aukeratu zituzten: dinobizikleta eta robot besoa.

Iraila bukaeran DBH3ko ordezkariak bi marrazkiekin klaserara joan ziren. Haiek ikasgelan aurkeztu eta sortutako bost taldeek bietako bat aukeratu behar izan zuten. Hiru dinobizikleta eta bi robot-besoren maketak egin zituzten. “Teknologia saioetan, eguberriak bitartean proiektua lantzen egon dira. Teknologian proiektuen garapenerako erabiltzen dugun Ideal prozedura jarraituz aritu dira elkarlanean”.

Bukatzean talde bakoitzak bere maketaren aurkezpena egin behar izan zuen. “Horretarako, argazkiak egin eta aurkezpena prestatu behar izan zuten”. Izan ere, LH3ko eta ID2ko ikasleei ere aurkeztu behar izan zieten. Bost maketetatik bi aukeratu zituzten, dinobizikleta bat eta robot besoa bat. ID2ko ikasleek maketak euren ikastetxera eraman zituzten eta haien gainean lan egin ondoren, asteartean prototipoekin etorri ziren eta aurkezpena egiteko. “Goizean LH3ko ikasleek ikusi zituzten. Arratsaldean, familiei proiektuaren berri eman genien. DBH3koak izan ziren protagonistak, haiek egin zuten

aurkezpena, argazkiak eta bideoz lagunduta. Bilakaera guztia eza-gutzeko aukera izan zuten familiek”. Lizarragak esan digunez, “balorazioa egiterakoan harritu egin dira familia: marrazki batetik begira zer maketak eta prototipoak egin dituzten. Oso polita izan zen ere DBH3koak tailerlean zeudela LHkoak euren maketen bilakaera nolakoa zen ikusteko egindako bisitak. Hau nola? Hori zer? Zergatik horrela? Gainera, proposamenekin. Oso motibaturik egon dira”.

Aukeraketaz

Iñigo Aritzak ikastolan Eki proiektuan murgilduta daude. “Teknologia Ekira bideratzeko Ikastolen Elkartean mintegiak antolatzen ditu maiztasun batekin Donostian eta Euskal Herriko hainbat ikastola elkartzen gara”. Lizarraga ere joaten baita. Proiektuaren berri eman zutenean, “gu inplikaturik gaudenez, proiektuan parte hartzeko lehentasuna izatea eskatu genuen. Askotan gertatzen baita ikastetxe handietara doazela halako proiektuak”. Burundatik egindako eskaera aintzat hartu zuten elkartean.

Ikastolaren eguna

Iñigo Aritzak ikastolaren eguna garagarriaren 1ean ospatuko da Altsasuko Foru plazan. Euria eginez gero, ikastolan egingen da. Ohi bezala bazkaria antolatu dute. Txartelak ikastolan eta ohiko tokietan daude salgai astelehenera arte.

Andra Mari ikastolaren 50. urteurrenerako lehen argazkiak

Andra Mariako Lakuntzako komunitateak talde argazkia egin zuen. Bazkarirako izen ematea zabalik dago

LAKUNTZA / SAKANA

Andra Mari ikastolak aurren mendeko erdia beteko duela eta prestatu duten argazki erakusketa Lakuntzan mustu zuten asteburuan. Denboraren kapsula hura bisitatzen jende mordoa

izan zen. Garai bateko ikasleen artean ezagunen bat identifikatzeko langintza hartu zuten asko. Erakusketarekin batera 50. urteurrenaren harira Andra Mari ikastolak prestatutako bideoa ikusteko aukera izan zen ere.

Andra Mari ikastolak bere urteurrenaren garagarriaren 8an, larunbatean, ospatuko du. Antolatutakoaren artean bazkari bat dago, ikastolako komunitateko kide izan diren edo direnei eta laguntzaile guztiei zabalik dagoena. Bazkarirako txartelak garagarriaren 3ra arte eskura daitezke. Haurrek 7 euro pagatu behar dituzte eta helduek 15. Andra Mari ikastolatik jakinarazi dutenez, urteurren ospakizunean sorpresa asko izanen dira.



Ikastolako ikasleen eta ikasle ohien talde argazkia. UTZITAKOIA



Irurtzango Pikuxarrek bere 16. urteurrena bihar ospatuko du

Irurtzango euskal txokoak, Pikuxarrek, 16 urte bete ditu. 2003an zabaldu zituen ateak egitasmoak eta bihar urteurrenerako zabalduko ditu. Ospakizunak 13:30ean hasiko dira gaita-poteoarekin. Eztarriak garbitu ondoren mahaira eseriko dira Pikuxarreko bazkideak. Bazkaltzen ari diren bitartean Lorena Arangoa clown-ak emanaldia eskainiko die. Bazkalondo luzearen ondoren mahaitik jaso eta bazkideak San Martin kalea zeharkatu eta Barazki gunera joanen dira han Arbizuko Beietz taldearen kontzertua izanen dutelako ospakizuna boro-biltzeko.

Pikuxar euskal txokoak egoitza berria egiteko egitasmoa du esku artean. Harekin aurrera egin edo ez asteburuan erabakiko dute. Bozkatuko dutena da Lizarra kalean dagoen eraikina erosiko (Laboral Kutxa dagoena) eta han taberna eta elkarte egitea edo ez. Gaur egun 97 bazkide ditu Pikuxarrek.



Plazan jarriko diren aulkiak eta mahaiak, atzera ere, beteko dira. ARTXIBOA

Galiziako gutizien eskaintza bertan

Gaurtik igandera Olagarro Azoka izanen da Uharte Arakilgo plazan. Galiziar erara prestatutako itsaski, haragi eta olagarroa dastatzeko aukera izanen da. Bestalde, plazan bertan dagoen udaletxean Ezkaba erakusketa ikusgai dago

UHARTE ARAKIL

Bosgarren urtez jarraian Lugoko Baralla pulpeiroa Uharte Arakilen izanen da, jendea gustua hartu dionaren seinale. Gaur iluntzerako galiziarrek sukaldia zabalduko dute, igande arratsalderara arte. Sukaldearen ondoan aulkiak eta mahaiak izanen dira, han hamabitakoa, bazkaria, merienda edo afaria egin nahi du-

tenendako. Plantxan, parriletan edo eltzetan prestatuko dituzte galiziarrek jatekoak, besteak beste, olagarroa, lakona, Padrongo piperrak, ganba handiak eta txikiak, zanburinak, txurraskoa, kriolloa, txorizoa eta beste atzerako dira mahaietara. Haiek laguntzeko Ribeiro eta Albariño ardo txuriak edateko aukera izanen da.

Antza, Lugo eta Ourenseko herri txikietan festak horrela ospatzen dituzte pulpeiro bat eta musikariak eramanez. Uharte Arakilen ere antzeko ariko dira bihar. Eguerdian Uharte Arakilgo erraldioen eta buruhandien konpartsa aterako da eta 22:00etan Destino Sonora taldearen kontzertua izanen da. Aurreko urteetan bezala uhartearrak eta

Ezkabako kartzelaz erakusketa

Nafarroako Gobernuaren Bakearen, Bizitzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak prestatutako "Ezkaba 1938-2018" erakusketa Uharte Arakilerira iritsi da. Udaletxeko ganbaran, igandera 26ra arte dago, astegunetan 18:00etatik 20:00etara ikusgai eta asteburuetan, 12:00etatik 14:00etara. Hura bisitatzen dutenak Ezkaba mendi gainean dagoen gotorlekuaren berri jasoko dute. Zehazki haren espetxe erabilerarena. 1936ko estatu kolpearen ondoren, kartzela moduan erabili zuten kolpistek. 1938ko maiatzaren 22an 2.487 preso zeuden eta 795ek ihes egitea lortu zuten. Haietatik soilik hiruk lortu zuten askatasuna.

makina bat sakandar pasako dira Olagarro Azokatik.

Aurreko alkateak Galizian egindako egonaldi batean "erdi txantxetan" izandako elkarrizketa batetik sortu zen dagoeneko finkatu den gastronomia festa.

Haurren egunarekin emanen diote hasiera euskal asteari

Etxarri Aranazko Gazte Asanbladak larunbatetik larunbaterako egitaraua prest dauka

ETXARRI ARANATZ

Etxarri Aranazko Gazte Asanbladak antolatutako euskal asteari haurren egunak emanen dio hasiera bihar. 10:00etan aurrerapegi margoketa egingen dute. Eguerdian, berriz, *Nomada blanco rojo* antzerkiye ikusteko aukera izanen da. Haurrendako bazkaye 14:00etan izanen da. Ondoren, 16:30ean, jokubek izanen dituzte. 19:00etan ikastolak antolatutako atletismo proba jokatu da. Hura bukatuta, kontzertubek gaztetxien: State Alerta eta Non Servium. Udalak

biharko antolatuta zuen toponimia ibilbidea eguraldi iragarpenagatik atzeratu egin da.

Euskal asteari segida emateko, ostegunean, *Erraiak* film laburra ikusteko aukera izanen da. Heldu den ostiralean, berriz, 20:00etan, pintxo-potea eta Txikiren bakarriketa iragarri dute. Horiek larunbateko euskal festaren atarikoak izanen dira. Bazkaria antolatu dute eta txartelak ohiko lekuetan eskura daitezke. Goizetik ordu txikiak arte egitarau zabala prestatu dute.

Irurtzundarrek erabakiko dute festei hasiera zeinek eman

Festetako etxajua zein herritarrek edo taldek botako duen proposatzeko maiatzaren 31ra arteko epea dute

IRURTZUN

Irurtzungo Udalak festen hasierako etxajua zeinek bota erabakitzeko parte-hartze prozesua jarri du martxan. Irurtzundarrek hilaren akaberara arte dute herriko pertsonak, taldeak edo bertako elkarten edota Irurtzunen sustapenean parte hartutako pertsonak proposatzeko. Proposamenak kultur etxean utzi daitezke. Haraino joan nahi ez dutenek euren proposamenak kulturetxea@irurtzun.eus e-postaren bidez bidaltzeko aukera izanen dute ere. Talde edo per-



Joan den urtean Patxi piztu zuen.

tsona bakoitzak proposamen bakarra aurkez dezake. Etxajua botatzeko proposatutako pertsonaren edo taldearen merituek zein diren zerrendatu beharko dira.

Jasotako proposamenak Irurtzungo Kultur Kontseiluak garagartzaroaren 5ean egingen duen bileran aztertuko dira. Kontseilukideek haiek aztertu eta horietako batzuk aukeratuko dituzte; hiru gehienez, bi gutxienez. Irurtzundarrek www.irurtzun.eus web orriaren, telefono mugikorretarako Irurtzun aplikazioaren bitartez edo udaletxean bertan aukeratu baten aldeko botoa emateko aukera izanen lukete garagartzaroaren 17tik 24ra. Hautagaitza bakar bat edo bat bera ere ez aurkeztuko ez balitz, erabakia Kultur Kontseiluak hartuko du.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO
LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

OSTIRALA 24

ALTSASU Gazte agenda. Antenen agurra.
18:30ean, Intxostiapunta gazte gunean.

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa.
19:00etan, Kale Nagusiko 7. zenbakiaren parean.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak.
20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa.
20:00etan, udaletxe parean.

ALTSASU Dolor y gloria gaurkotasunezko filmaren emanaldia.
22:00etan, lortia kultur gunean.

LARUNBATA 25

ETXARRI ARANATZ Haurren eguna: aurpegi margoketa, antzerkia, bazkaria, jokuak eta

merendola. **EAGAK** antolatuta.
10:00etatik aurrera, plazan.

LAKUNTZA Altsasuko saskibalo klubeo denboraldi bukaerako festa. Gaztetxoendako jokoak eta kirolariekin solasaldia: Naiara Diez, Asier Pazos eta Beñat Katarain. 7 eta 13 urteko haurrei zuzendua.
11:00etan, Zelandi kiroldegian.

UHARTE ARAKIL V. Pulpo a Feira. Erraldoien konpartsa.
12:00etan, plazan.

LAKUNTZA Nafarroako ezkilzain topaketa.
10:00etatik aurrera, plazan.

ALTSASU Indar errepresiboan aurrean prentsaurrekoa. Ospa mugimenduak antolatuta.
13:00etan, Foru plazan.

IRURTZUN Pikuxar urteurren ospakizuna. Gaitapoteoa, bazkideen bazkaria eta Lorenaren emanaldia.
13:30etik aurrera, Pikuxarren.

ALTSASU Gazte agenda. Brawl Stars.
18:00etan, Intxostiapuntan.

IRURTZUN Gara egunkariaren expolioaren aurka eta prentsa askatasunaren aldeko pintxo poteoa eta Beietz! taldearen kontzertua.
18:30ean, Barazkigunen.

ALTSASU Altsasukoak Aske elkartean kantu poteoa.
18:30ean, lortia plazan.

ETXARRI ARANATZ Andra Mari ikastolaren XI. Binakako txapelketa, Naparpellets saria.
19:00etan, plazatik.

UHARTE ARAKIL V. Pulpo a Feira. Destino Sonora taldearen kontzertua.
22:00etan, plazan.

ETXARRI ARANATZ Non Servium eta State Alerta taldeen kontzertua.
22:30ean, gaztetxean.

IGANDEA 26

ALTSASU Dantzari Txiki eguna. Etorbizuna dantza eskolak antolatuta.
11:00etatik aurrera, lortia zabalgunean.

ALTSASU Gazte agenda. Ur jolasak.
19:00etan, Intxostiapuntan.

ETXARRI ARANATZ Musika plazan: Esku harria Oteizaren (h)aria musika, dantza eta




UHARTE ARAKIL Ezkaba 1938-2018 erakusketa. Maiatzaren 26ra. Astelehenetik ostiralera 18:00etatik 20:00etara eta larunbatetan eta igandetan 12:00etatik 14:00etara, udaletxearen ganbaran.




IRUÑEA Guaixe eta Oixe zaharren erakusketa. Guaixeren 25. urteurrena. Maiatzaren 25era. Astelehenetik ostiralera 09:30etik 22:00etara, ostiraletan 09:30etik 24:00etara eta larunbatetan 11:00etatik 24:00etara, Geltokin.



ALTSASU Itziar Nazabal tailerraren ikasleen lanen erakusketa. Maiatzaren 26ra. Astelehenetik larunbatara 18:30etik 21:00etara eta igandean 16:00etatik 20:30era, lortia kultur gunean.



IRURTZUN Chuffi-ren margolanen erakusketa. Ekainaren 15era arte. Pikuxar Euskal Txokoan.



ALTSASU Koldo Arnanz arteskolaren ikasleen lanen erakusketa. Maiatzaren 27tik ekainaren 9ra. Astelehenetik ostiralera 18:30etik 21:00etara, larunbatetan 18:30etik aurrera eta igandean 16:00etatik 20:30era, lortia kultur gunean.

ZORION AGURRAK



Eukene Lanz Senar
Zorionak zure lehenengo urtebetetzean!
Aiton-amomaren eta izebaren partez muxu haundi-haundia!



Mari Cruz Mundiñano
Zorionak iyendien eta egun ona pasa.
Zerbaki bikoitza aurten!! Etxekuek



Boltio!
Urte askuen Boltio! Luis, Oihan, hi ta bes geñiakuek ETXERATU artio hor yonen gettuk! Eutsi eta aurrera bolie!

ZORIONDU ETXEKO TXIKIA!

ZORION@GUAIXE.EUS
618 882 675

DEKOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.



Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa • Balkoien eta terrazen itxitura • Kolore guztietako mallorkinak • Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com - www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia - ALTSASU
Telf./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



bertsolaritza ikuskizuna. Eneko Lazkoz bertsolariarekin.
19:30ean, Zelai Berrin.

ALTSASU Dolor y gloria gaurkotasunezko filmaren emanaldia.

19:30etan, Iortia kultur gunean.

ASTELEHENA 27

ALTSASU Pentsio duinen alde. Nafarroako Pentsionistak Martxan eta Otsailaren 22ko Plataformak deitutako elkarretaratzea.

12:00etan, Udaletxearen parean.

HIRIBERRI ARAKIL Adimen emozionala tailerra Leticia Garces Larrea pedagogoarekin.
17:00etatik 18:30era, kultur etxean.

ASTEAZKENA 29

HIRIBERRI ARAKIL Adimen emozionala tailerra Leticia Garces Larrea pedagogoarekin.
17:00etatik 18:30era, kultur etxean.

ETXARRI ARANATZ Berrerabilitzearen artea.
17:00etatik 19:00etara, kultur etxean.

ALTSASU Jon Arretxe idazlearen Ez erran deus liburuaren gaztelaniazko edizioaren aurkezpena idazlearekin.
Altsasuko liburutegiak antolatuta.

19:00etan, Iortia kultur gunean.

OSTEGUNA 30

ETXARRI ARANATZ Musika eskolako entzunaldiak: bibolina.
19:00etan, kultur etxean.

ETXARRI ARANATZ Euskal Astea. Erraiak film laburraren proiektzioa.
20:00etan, gaztetxean.

ALTSASU Los hermanos Sisters gaurkotasunezko filma.
19:30ean, Iortia kultur gunean.

IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK

ETXEA ALOKAGAI

Lixarregon familia bakarreko etxea alokagai: 3 logela, bajera, porxe eta lursailarekin. Hornituta, egur berogailua. Ez dira animaliak onartzen. Tfnoa 659 04 23 72

TXOKOA ALOKAGAI

Lizarragako Azi iturri Txokoa 2019ko San Adrian festetan alokatu nahi da, garagarriaren (ekainaren) 15, 16 eta 17an. Gutxienekoa 600 euro izanen da. Alokatu nahi duen edonor datorren igande, hilak 2, arratsaldeko 18:00etan bertan ager dadila. Bat baino gehiago baldin badago enkantea eginen da.

LANA/NEGOZIOA

LAN ESKAINTZA

Altsasu, Olazti eta Zordiako Gizarte Zerbitzuan familia langile lan poltsa osatzeko deialdia: oinarriak www.alsasua.net web orrian. Izen ematea Altsasuko Gizarte zerbitzuen egoitzan (Gartzia Ximenez 42 helbidean), tfnoa 948 467 662. Epea maiatzaren 29an, 14:00etan amaizten da.

OHARRAK

Odol-emateak Etxarri Aranatz: Maiatzaren

29an, 17:00etatik 20:30ra. www.adona.es

Etxarriko irakurle taldea: ekainaren 6an, ostegunean, 19:00etan Etxarri Aranazko liburutegian elkartzeko dira eta Paul Auster-en Sunset Park liburuaz arituko dira. Gonbidatuta zaude.

XALOA TELEBISTAN "Nafarrak Munduan" saiora-ko nafar abenturazaleen bila dabilta. Atzerrian bizi izandako gazte zein heldu; lan kontuengatik, ikasketa kontuengatik edo dena delakoagatik beste lurralde batean denbora batez bizitako esperientzia kontatzeko Sakanako norbaiten bila dabilta. Saioa elkarrizketa dokumentala izango da. Harremanetan jartzeko produkzioairuinerria@xaloatelebista.eus helbidera idatzi.

Crowdfunding Kanpaina: Aritz Ganboa de Migel artzain-gaztagile arbazuarren errokan parte hartze- ra gonbidatuta zaude. Arruazutik Izabaraino mendi lasterketa eta gazta

Nabarmendu zure iragarkia

Modulo txikia:
14,52 euro
948 564 275

trukaketa Bideak dokumentalean jasotzeko kanpaina laguntzeko diru bilketa egiten ari dira. Informazioa <http://www.bideakdokumentala.eus/eu/crowdfunding-kanpaina-web-gunean>.

Bidelagun izan nahi? Mintzakide programaren bidez euskara praktikatzera elkartzeko dira hizkuntza ikasten ari direnak eta hizkuntzako oihura dutenak. Euskaldun batekin, bidelagun batekin aritzen dira. Bidelagun izan nahi duzu? 600 482 024 telefonon edo AEKren Itsasi euskaltegian duzu informazio guztia guztia.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalzen eta finantzatzen: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

Sakana Trenaren alde. Taldea astelehenero, 19:00etan, elkartzen da. Behin behineko biltokia LABek Altsasun duen egoitzan da, han egiten dira bilera.

3MBk kontu korrontea zabaldu du Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811.

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinika) edo 689 03 51 02

(Patxi) telefonoetara hots egin dezatela.

Josefina Arregui Klinikako bazkidea izan nahi baduzu, urtean 12 euro edo nahi duzun kopurua eman dezakezu. Informazio gehiago amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com edo amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com.

Enplegarritasuna hobetzeko bitartekaritza eta aholkularitza zerbitzua. Sakanako Enpresariari Elkartea langabeei eta lan bila dabilzanendako duen aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

OPATUTAKOAK/GALDUTAKOAK

OPATUTAKOAK

Altsasuko Udaltzaingoak Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta nezese- rrrak: 31. Audifonoa: 1. Betau- rrekoak eta betau- rreko- zorroak: 42. Eurita- koak eta makilak: 19. Bel- larri- takoak, kateak, esku- mu- turrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste ob- jektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

www.iragarkilaburra.eus

EZKONTZAK

- **Iñaki Gaulabur Razkin eta Miriam Lopez de Sabando Mozo,** maiatzaren 17an Dorraon
- **Jose Alberto Romero Serrano eta Yanira Aristorena Campos,** maiatzaren 18an Etxarri Aranatz

HERIOTZAK

- **Maria Francisca Maiza Erdozia,** maiatzaren 7an Etxarri Aranatz
- **Miguel Navarro Soto,** maiatzaren 18an Uharteko Arakilen

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskela@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82€ / 96,80€ / 130,68€ prezio hauek BEZA barne dute.
- ▶ Bazkideek %10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.

EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 24



Goiz partean ez du euri gehiegirik egingo, baina egunak aurrera egin ahala, geroz eta euri gehiago egingo du. Arratsalde eta gau partean zaparradak mardulak izango dira.

Igandea, 26



Ez du euria etengabe egingo, baina edozein momentutan prezipita lezake. Ipar haizeak noizbehinka abiadura handiak har ditzake gure bailaran.

Larunbata, 25



Euria izango da eguneko protagonista. Zaparrada handiak izango dira han hemenka eta euria etengabe egingo du ipar haizearen ondorioz.

Astelehena, 27



Temperaturek gora egingo dute, epeltze aldera. Baina oraindik euria izan dezakegu egunean zehar. Haizea lasaiago ibiliko da ere.

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AGU, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- ✉ @Grupolrache
- f Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es



Talde irurtzundarrak zaleen babesa eskertu zuen. Ez dute ahaztu behar liga erregularrean hirugarrenak izan direla. XOTA

Play-offak: Osasuna Magna Xota erori da

ARETO FUTBOLA Play-offetako final laurdenetako ostiraleko 2. partidari Jaenen kontra irabazi zuen talde berdeak (3 eta 1), baina berdinketa hausteko igandean jokatuak 3. partidari andaluziarrak gailendu ziren. Hala ere, denboraldi bikaina egin dute

Lehen mailako areto futboleko titulua erabakitzeke play-offetik kanpo geratu da Osasuna Magna Xota. Eta modu oso mingarrian, gainera. Play-offetako final laurdenetan Jaen Paraiso Interior taldearekin aritzea egokitu zitzaion Imanol Arregiren taldeari, 3 partidetarara. Lehen partidari Jaenek irabazi zuen, Andaluzian, eta ostiralean biga-

rren partida jokatu zen Iruñean. Anaitasunako gotorlekuan primeran jokatu zuen Osasuna Magnak eta garaipen garrantzitsua lortu zuten, 3 eta 1.

Igandean jokatu zen berdinketa hausteko partida erabakigarria, Anaitasunan. Kantxa faktorea alde zuten jokalaririk nafarrek, eta tentsio handiko partidari, lehia ongi hasi zen nafarrendako, Rafa

Usinek Osasuna Magna aurreratu zuelako. Tamalez, bigarren zatian Carlitosek berdinketaren gola sartu zuen 29. minutuan, eta minutu bat beranduago Jaenen bigarrena sartu zuen Brandik. Imanolek Adri Ortega atezain-jokalaririk jarri zuen, baina estrategia ez zen ongi atera eta Giasoonek Jaenen hirugarrena sartu zuen.



XOTA

Kopako txapeldunordeak

ARETO FUTBOLA Emakumezkoen senior mailako Nafarroako Kopako finala jokatu zuten igandean ligako txapeldun Olitek eta ligan bosgarrena sailkatu zen Irurtzungo Xotak. Oso ongi aritu zen Xota, dena eman zuen, baina 4 eta 2 irabazi zion Olitek.



JESUS AGUIRRE

Ligako txapeldunak

ARETO FUTBOLA Areto futboleko Gazteen Ohorezko Mailako 3. multzoan dabilen Xotak liga irabazi du. Azken jardunaldian, bihar Eskoriatza hartuko du Xotak Atakondan, 18:00etan, eta etxean liga garaipena ospatzeko aukera ederra du talde irurtzundarrak.

Lagun Artea: nesken taldea

Haurren mailara bitartean mutilekin batera futboleko jokatu dute Lagun Arteko neskek Nafarroako Futbol Federazioko Txapelketetan, baina kadete mailatik aurrera ezinezkoa dute. Horrela, neska horiek futboleko jarraitzeke emakumezkoen taldea sortu nahi da Lakuntzan. 2003an, 2004an, 2005ean, 2006an eta 2007an jaiotako neskei deia egin diete, izena eman eta Lagun Arteko nesken taldea sortzeko. Interesatuak 636 509 741ra hots egin dezakete.

"Egin dugun denboraldi bikainari ginda jarri ez izana pena handia da. Oraintxe bertan jota gaude. Taldeak dena eman du eta pena handia da" adierazi zuen Imanol Arregik. Roberto Martil kapitain irurtzundarra iritzi berekoa zen. "Esperantza handia genuen. Uste genuen kanporaketa gaindituko genuela, etxean jokatzeko baikenuen, baina ezinezkoa izan da. Sekulako kolpea da. Denboraldi bikaina egin dugu, baina oraintxe bertan jota gaude" onartu zuen.

FUTBOL ERREGIONALA

11. JARDUNALDIKO EMAITZAK
Irunxiki - Lagun Artea **3-3**
Altsasu - Universidad de Navarra **4-0**

SAILKAPENA

IGOERA FASEKO A. MULTZOA

1	Ardoi	23
2	Lagun Artea	22
7	Altsasu	9

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN
18:00 Altsasu - Lagunak (*Dantzaleku*)
IGANDEAN
17:00 Lagun Artea - Ardoi (*Lakuntza*)

Bi oilarren borroka

Lagun Arteak eta Beriainek partida bikaina eskaini zuten. Xabik, Ikerrek eta Enekok sartutako golei esker 2 eta 3 aurreratu zen Lagun, baina 2 minuturen faltan berdintzea lortu zuen Irunxiki. Altsasuk, aldiz, garaipen potoloa lortu zuen etxean, Universidad de Navarrari 4 eta 0 irabazita. Gorritxoak izan ziren jaun eta jabe, eta lokin (2), Imanol eta Guisado izan ziren golegileak. Asteburuan, Ardoik eta Lagun Arteak lidergoia dute jokoan eta Altsasuk Lagunak taldea hartuko du.

EMAKUMEEN ERREG.

33. JARDUNALDIKO EMAITZAK
Gazte Berriak - Altsasu **6-0**

SAILKAPENA

EMAK. ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

1	Osasuna Fundazioa	92
13	Altsasu	26

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN
15:30 Altsasu - Auto Areta (*Dantzaleku*)

Altsasuk liga etxean despedituko du
Altsasuko neskek jipoi gogorra jaso zuten aurreko asteburuan Antsoainen. Asteburuan ligako azkeneko jardunaldia jokatu da eta Altsasuk Auto Areta taldea hartuko du bihar Dantzalekun. Ea irabazi eta 13. postuari eusten dioten.

ELOMENDI TXAPELKETA.

27. JARDUNALDIKO EMAITZAK
Izalsa - Zaldua **2-3**

SAILKAPENA

ELOMENDI FUTBOL TXAPELKETA

1	Elomendi	57
4	Zaldua	53

ELOMENDI KOPA

LARUNBATEAN
Barasoain - Zaldua (*Barasoain*)

Zalduak Kopari ekingo dio

Liga 4. postuan despeditu eta gero, orain Kopari ekingo dio Zalduak.



Amaia Razkin eta Jose Luis Beraza ikusgarri aritu ziren. EH ERRONKA

EH Erronka: Beraza eta Razkin uhartearrak laugarrenak

MENDI LASTERKETAK 67 kilometroko ultra trailean Jose Luis Beraza eta Amaia Razkin laugarrenak izan ziren

Larunbatean distantzia luzeak maite dituzten mendi korrikariak Leitzaan bildu ziren, Euskal Herria Mendi Erronka Ultra Trail lasterketan (67 km eta 3.000 m desnibel positiboa) aritzeko. Proba, aldi berean, Euskal Herriko Ultren Txapelketa izan zen. Beraz, berez ikusgarri den probak ikusmin handiagoa piztu zuen aurten. Puntako korrikariak irten ziren besteak beste Aralarko paraje zoragarriak zeharkatu zituen ultra osatzeko prest. Lasterketa hasi baino lehen, erretiroa hartu duen Iker Karre-ramezketarra omendu zuten.

Beraza, Erronkako eta Euskal Herriko Ultren beterano txapelduna

Berastegiko Ion Azpirozek erakustaldi bikaina egin zuen eta meritu handiko garaipena lortu zuen, euripean 67 km-ak osatzeko sei ordu eta hiru laurden behar izan baitzuten (06:45:07). 12 minutuko aldea atera zion Logroño-ko Jonatan Tejadari (06:57:32). Hain zuzen ere, Tejada izan zen probako sorpresetako bat, bereziki igotzen sekulako erraztasuna izan zuelako. Iker Etxebarria basauriarra izan zen hirugarrena (07:05:31) eta Jose Luis Beraza uhartearra laugarrena, proba bikaina egin eta gero (07:11:21). Izan ere, ikusgarri aritu zen beterano sakandarra, sare sozialetan aitortu duen bezala. "Probaren bezperetan zalantzak izan nituen, katarro zantzuak nituelako, baina espero baino askoz ere hobeto aritu nintzen, hankek

ongi erantzun zuten eta sekulako lasterketa egin dut, egia esan. Oso kontentu nago. Laugarrena sailkatzeaz gain, Euskal Herriko Erronkako txapeldun beteranoa eta Euskal Herriko Ultren Txapelketako hirugarrena eta txapeldun beteranoa izan naiz. 50 urte beteko ditudan urte honetan ezin dut gehiago eskatu!" aipatu du Berazak sare sozialetan.

Joxeja Maiza etxarriarrak ere proba bikaina egin zuen eta 19.a iritsi zen sailkapenean (07:36:55). Jabi Beraza irurtzundarra 85.a izan zen (08:42:27), Xuban Mendiola etxarriarra 239.a (10:01:15) eta Felix San Roman altsasuarra 453.a (12:47:48).

Amaia Razkin gora

Emakumezkoetan Uxue Fraile ikusgarri aritu zen. Zortzi ordu behar izan zituen proba bukatzeko (08:04:36) eta 14 minutu pasa atera zizkion Silvia Triguerosi (08:18:46). Izaskun Zubizarretak osatu zuen podiuma (08:47:44) eta Amaia Razkin sakandarra laugarrena sailkatu zen, lasterketako lehen emakume seniorra (08:52:28). Urrats sendoa eman du Uharteko Arakilgoak: horren isla, aurreko astean Irati Trailen hirugarrena izan zen eta Euskal Herriko Mendi Erronkan, ultra distantzian, bikain moldatu da, laugarrena.

Bestalde, asteburuan Berroetan jokatuak mendi lasterketan Iñaki Mihura (01:48:25) eta Lourdes Oiartzabal (02:14:35) gailendu ziren. Jokin Bereziartu altsasuarra 13.a sailkatu zen (02:08:32).

Dena prest Iturmendiko bizikleta ibilaldirako

KIROLDEGIA Sakanako Mankomunitateko 4 zerbitzuz prestatu dute eguna. Igandean, 9.30ean abiatuko da mendi ibilaldia eta ondoren tailerrak, ipuinak eta jolasak izango dira. Bigarren eskuko materiala Elkarri Laguntza elkartearendako izanen da

Olaztiri lekuko hartuz, aurten Iturmendik hartuko du Sakanako Bizikleta Ibilaldi berezia. Kirola sustatzeaz gain, Sakanako bizi diren beste kultura batzuk ezagutzeko aukera eskainiko du, euskaraz aritzeko gonbitea izanen da eta guztia, genero ikuspuntua kontuan hartuta. Sakanako Mankomunitateko 4 zerbitzuz hartu dute parte antolakuntzan: kirol zerbitzuak, Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuak, euskaraz zerbitzuak eta berriki lanean hasi den berdintasun zerbitzuak.

Martxa lasaia eta auzatea

Lehenik eta behin, Iturmendi, Bakaiku eta Urdiain artean 7 km-ko txirrindularitza ibilbidea prestatu dute, 9:30ean Iturmenditik aterako dena. "Erraza da, ez ditu aldapa asko eta martxa lasaia joango gara. 10 urtetik gora bakarrik joan daitezke neska-mutikoak, baina 10 urtetik behera helduekin. Familian joateko martxa gomendagarria da" aipatu du kirol zerbitzuko teknikari Amaia Gerrikagoitiak. Bakaiku eta Urdiaindik Iturmendira bizikletan joateko aukera izango da, 9:15ean, Barranka Txirrindulari Taldekoekin. Euren zaindako dituzte bidegurutzeak. Martxa dohainik da baina bertan aritzeko aurretik izena



Aurreko urtean Olaztini izan zen festa.

eman beharra zegoen Mankomunitateko Kirol Zerbitzuan, aseguru kontratatuzko.

Bigarren eskuko kirol materialaren bilketa

Martxa ondoren, auzate osasuntsua izango da, 11:30ean. Tartean, Iturmendin bizi den Marokoko jatorriko familia batek tea eta gozo osasuntsuak eskainiko ditu. Ordurako Iruñeko Elkarri Laguntza elkarteak kideak bigarren eskuko kirol materiala eta arropak jasotzen hasiko dira. Duela 6-7 urte sortu zen elkarteak, etxe-

gabetze prozesuak hasi zirenean, Hipotekak Kaltetutako Plataformatik (PAH). "Ikusi genuen behar asko dagoela, prekarietate izugarrian bizi direla familia asko" azaldu du taldeko Mikel Otazuk. Egiten dituzten lanen artean, haurrak ikastetxeetara joateko arropa eta materialarekin hornitzen dituzte. "Iraila hasieran San Francisco eskolatik deitzen digute haurren ekipazioa prestatzeko; 30-40 haur jantzi behar ditugu, eta igandean Iturmendin biltzen duguna izugarri ongi etorriko zaigu" gaineratu du Elkarri Laguntzako Maria Ekizak. Beraz, etxean ditugun arropa, motxilak eta kirol materiala eramateko gonbita egin dute.

Egurditik aurrera munduko jolasetan jolasteko, ipuin ez sexistak irakurtzeko eta Berri Biketako Joaquinnek eta Muruzabaleko Joxik eskainiko duten bizikleta konpontzeko tailerren parte hartzeko aukera egongo da. "Etzi parte-hartzera animatu nahiko nuke jendea: berdintasun baloreekin, euskaraz, Sakanako jaiotako sakandarrak eta kanpotik etorritakoak, guztiok kirol pixkat egin eta ahal badugu lan eder hau egiten duen elkarteak laguntzen badugu, egun oso polita atera daiteke" dio Mankomunitateko presidente David Orozek.

Katarain Saint-Honorén

MENDI LASTERKETAK

Igandean Munduko Kopako 5. proba jokatu zen Saint-Honorén (Frantzia), Sky Race des Matheysins (27 km, 1.980 m desnibel +). Euri, laino eta elur artean bikain aritu zen Euskal selekzioa. Oihana Azkorbebeitia 4.a sailkatu zen, Ander Iñarra 8.a, Xabi Macias 34.a eta Beñat Katarain lakuntzarra 40.a.



EUSKAL LASTERKARIEN SELEKZIOA

Euriari aurre eginez, Lasterbidean

ATLETISMOA 1000 korrikalari inguruk hartu zuten parte Arbizu eta Lakuntza artean jokaturako Lasterbidean nazio elkartasun lasterketan eta Gontzal Murgoitio eta Maialen Elia gailendu ziren. Ivan Sobredo eta Ramirez de Alda, lehen sakandarrak

Euria ez zen oztopo izan igandean Lasterbidean Nazio Elkartasun lasterketan parte hartu zuten ehundaka korrikalariak kikiltzeko. Arbizutik atera, Lakuntzaraino heldu eta handik buelta hartuta, 7,4 kilometroko proba irribarrearekin ekin zioten korrikalariak, eta irteerako kateak apurtu eta Altsasuko inauterietako pertsonaien artean proba irribarrearekin ekin zioten. Irteeran Sakanako presoen senitartekoak zeuden. Euria eta hotza, hori zen panorama, baina Arbizu eta Lakuntzan bildutako txalo zaparrada artean egin zuten bidea, animotsu, euskal preso eta errepresaliatuekiko eta beren gertuekiko elkartasun herri ekimenean parte hartu zuten korrikalariak. 700 korrikalari hartu zuten irteera eta horietatik 601ek osatu zuten proba.

Sailkapena

Txapeldunak Elorrioko Gontzal Murgoitio (24:08) eta Maialen Elia (30:09) izan ziren. Sakandar ugarik hartu zuen parte proba lasterketan, eta guztietan azkarrena Ivan Sobredo altsasuarra izan zen, helmugan 12.a (26:36). Haizea Ramirez de Alda altsasuarra emakumezkoen podiumera igotzear egon zen, laugarrena sailkatu baitzen (31:12).

Proba nagusia bukatuta, 2,5km-ko lasterketa herrikoia abiatu zen Arbizutik. 200 korrikalariarik gora aritu ziren, baina kasu honetan ez zen sailkapenik egin.

Bazkaria eta kontzertuak

Sari ematea eta Lasterbidean ekitaldia despedituta, Arbizun

KORRIKALARIK IRRIBARREAREKIN ESKERTU ZITUZTEN IKUSLEEN TXALOAK ETA ANIMOAK



Lasterketa hasi baino lehen zumba beroketak egin zituzten.



Korrikalari askok taldetan osatu zuten proba.



Benignoren taldeak 700 pertsonendako bazkaria prestatu zuen.

Sakandarrak

Gizonak

1. Gontzal Murgoitio	24:08
12. Ivan Sobredo (Alts)	26:36
18. Beñat Agirre (Alts)	27:15
28. Asier Estarriaga (Etx)	28:51
31. Gaizka D. Garaio (Bak)	29:27
35. Joseba Galarza (Iturm)	29:58
42. Ivan Verdugo (Etx)	30:10
43. Unai Razkin (Irrur)	30:20
49. Iñaki Agirre (Etx.)	30:34
51. Aimar Araña (Etx)	30:47
59. Xabier Martinez (Alts)	31:06
63. Arkaitz Munarriz (Etx)	31:21
67. Iñaki Arkauz (Lak)	31:48
73. Aritz Jaka (Etx.)	32:07
74. Inhar Olabide (Alts)	32:07

Emakumeak

60. Haizea R. de Alda (Alts)	31:12
87. Ioana Lopez (Etx)	32:37
132. Maria Goikoetxea (Etx)	35:20
150. Maitane Txueka (Arb)	36:05
151. Marian Ijorra (Arb)	36:08
173. Ainara Martin (Arru)	37:07
178. Anne Azkona (Etx)	37:15
201. Joana Senar (Etx)	37:50
272. Ixa San Martin (Etx)	39:42
280. Olatz Azazeta (Alts)	39:56
311. Jaione Mendinu. (Arb)	40:49
315. Edurne Gonzalez (Alts)	40:54
404. Amaia Benjumea (Etx)	43:28
455. Eider Jaka (Etx)	44:48
525. Oskia Ollakarizk. (Irrur)	46:48

*Sailkapen osoa: guaixe.eus

bildutako korrikalariak eta haien gertukoak Lakuntzara hurbildu ziren, kalejiran, elektrotzarangaz lagunduta. Frontoira jo zuten, Benignoren Lagunak taldeak prestatutako entsalada eta paella goxoa dastatzera. 700 lagun baino gehiago bildu ziren boluntarioek prestatu eta zerbitzatutako bazkari erraldoian. Ondoren, kultur etxean zirku tailerra eta frontoian herri kirolak izan ziren, eguna bukatzeko Al Carajo eta Anita Parker taldeen kontzertuak izan ziren plazan eta DJ Bullek musika jarri zuen.



Sakandar koadrila Lakuntzatik pasatzen.



Korrikalariak, irteteko prest.

Etxarri Aranatzen ikastolarekin binaka korrika

ATLETISMOA Andra Mari ikastolaren VI. Binakako Lasterketa-Naparpellet Saria bihar, 19:00etan

Andra Mari ikastolaren VI. Binakako Lasterketa, Naparpellet Saria bihar jokaturako da, Etxarri Aranatzen, 19:00etatik aurrera. Ikastola 50 urte betetzen ditu, eta urteurrenarako egin dituzten kamisetak jantzi ariko dira korrikan bihar korrikalariak.

Haur bakoitzak heldu batekin parte hartu ahal izango du eta L.H.-ko 5. eta 6. mailakoek, aldiz, nahi duten bezala moldatu ahal-ko dituzte bikoteak.

Guztira 5 lasterketa jokaturako dira. Hasteko, 2 eta 5 urte bitarteko haurrek moto lasterketa (200 m). Ondoren Haur Hezkuntzako ariko dira (200 m) eta segidan Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoak (400 m). 19:40ean Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako txanda izanen da (800 m) eta, bukatzeko, 20:00etan, Lehen Hezkuntzako 5. mailatik aurrerakoek eta helduek 1.609 m osatuko dituzte, plazatik atera, Andra Mari ikastola berrira joan eta buelta. Proba hasi baino lehen eman daiteke izena (4 euro).

Helduen mailan taldeka izena emanaz gero – 8ko taldeak –, Urbasa Abentura parkerako sarre-ak zozketaturako dira. Eta 18 urtetik gorako bikoteek Borda jatetxean afari bateko zozketan parte hartuko dute. Photocalla eta auzatea izanen dira.



Yoseikan budo erakustaldia

YOSEIKAN BUDO Ikasturtean ikasitakoa praktikan jarriko dute yoseikan budoan trebatzen diren ikasleak asteazkenean, 18:00etatik aurrera, Altsasuko Burunda pilotalekuan. Aritz Agirrebengoa da Txuixou Syoseikan Budoko irakaslea, eta Altsasun Zahara Ballouk irakaslearen laguntza du. Sakanan 175 pertsona trebatzen dira arte martzial honetan.

Garikoitz Flores bigarrena Asturiasko Fito igoeran

AUTOMOBILISMOA Espainiako Mendi Txapelketako 2. Kategoriako lider jarraitzen du lakuntzarrak

Asteburuan Espainiako Automobilismoko Mendi Txapelketako baliaigarria den bigarren proba jokatu zen Asturiasean, 48. Fitoko Nazioarteko Igoera. Euriak proba baldintzatu zuen guztiz eta arazo asko izan zituzten autoek. Proba Christian Merli italiarrak irabazi zuen (Osella). Garikoitz Flores pilotu lakuntzarrak (BRC B49) bigarrena sailkatu zen bere kategorian, 2. Kategorian (06:01 m.), Domingo Estrada (Silver Car S3) irabazletik 2 segundora (05:59 m.). Hala ere, Espainiako Mendi Txapelketako 2. Kategoriako lider jarraitzen du Garikoitz Floresek (48 puntu), bigarrena den Domingo Estradarekin puntutara berdinduta. Hurrengo proba Tenerifen jokatu da ekainaren 8an eta 9an, X. Guia de Isorako igoera.

Bestalde, asteburu bat lehenago, maiatzaren 11n jokatu da XXVIII. Gorko Igoeran bigarrena sailkatu zen Garikoitz Flores, Aitor Zabaleta txapelidunetik (LOLA T298, 02:32 m) 4 segundora (02:36). 57 pilotuk hartu zuten parte igoeran, baina horietatik 49k lortu zuten proba bukatzea.

Arakildarrak III. Esteribarko Rallysprintean

Maiatzaren 11n III. Esteribarko Rallysprinta jokatu zen. 27 ibilgailuk lortu zuten sailkatzea. Joseba Beola pilotuak eta Jose Luis Iratzokik irabazi zuten rallysprinta (Mitsubishi Lancer Evo X, 18:39 m.), eta Arakil Motorsport taldeko hainbat taldek hartu zuten parte: Javier Garcia eta Javier Bueno (Renault Clio Sport) laugarrenak sailkatu ziren (20:07), Sergio Pejenaute eta Luis Zabalza (Peugeot 309 Gti 16 v) 19.ak (21:42), Joseba Iñarrea eta Mairu Garisoain (Citroën Saxo VTS) 20.ak (21:43) eta Alberto Osinaga eta Eduardo Ardaiz (BMW E30) ere 20.ak (22:19). Arakil Motorsporteko hiru bikotek ezin izan zuten proba bukatu: Fran Bujan-Unai Bengoa (Ford Sierra Cosworth), Diego Figueroa-Oskia Dominguez (Ford Focus ST) eta Eder Urrestarazu-Victor Santesteban (Citroën AX GT).

Asteburuan Onton-Otañes Rallysprinta jokatu zen. Eneriz Besga pilotu olaztiarrak eta Ander Gurmindokopilotuak (Citroën Saxo VTS) ez zuten proba bukatu, hirugarren pasan errepeditak atera eta gero.

Bihar bi irristaketa hitzordu Altsasun

IRRISTAKETA Bihar, goizeko 10:00etan, Patin Sakanak antolatutako Sakanako 3. Trofeoa jokatu da Altsasun, eta, arratsaldean, 17:00etan, Mankomunitateak antolatutako Sakanako Iristaketa Topaketa izanen da

Irristaketa zaleak zorteko dira, asteburu honetan bi irristaketa ekitaldi hartuko baititu Altsasun, biak larunbatean. Larunbat goizean, 10:00etatik aurrera, Patin Sakanako taldeak hainbat babesleren laguntzarekin antolatutako Sakanako 3. Trofeoa jokatu da Altsasuko Altzania kalean. Abiadurazko irristaketa txapelketa izanen da, kategoriaz guztietakoa. Antolakuntzatik adierazi digutenez, eurria egin badu Burunda frontoian jokatu da.

Arratsaldean Sakanako Iristaketa Topaketa

Arratsalderako Sakanako Mankomunitateko kirol zerbitzuak Sakanako Iristaketa Topaketa antolatu du, Altsasuko Udalaren, Sakanako Patin taldearen eta Olaztiko Sutegi, Urdiaingo Aitziber, Etxarri Aranatz eta Uharteko Arakilgo irristaketa taldeen laguntzarekin. Haur, gazte eta helduendako irristaketa topaketa izanen da, irristalarien festa. Ibilbide



Villalobos eta Chamorro. PATIN SAKANA

politua egingo dute: Altzania kaltetik abiatuta, Zumalakarregi kaleari buelta eman, San Juan kalera sartu, hura gurutzatu eta Gartzia Ximenezera aterako dira, ondoren Bakea kalera sartu eta Altzania kalera heltzeko. "Iris-

talari guztiei topaketan aritzeko deia egiten diegu, ongi pasako dugu" diote Mank-etik. Izena ematea dohainik da, Mank-eko Kirol Zerbitzuan (948 464 866 edo kirolak@sakana-mank.eus) edo aipatutako irristaketa taldeetan.

Irristalari sakandarrak bikain Espainiako Pista Txapelketan

Asteburuan Txantreako patinodromoan junior eta senior mailako Espainiako Pista Txapelketak jokatu ziren. Emakumezkoen junior mailan Ana Rita Correira altsasuarra (Lagunak) 29.a sailkatu zen. Gizonezkoen junior mailan, Unai Villalobos altsasuarra (Lagunak) bigarrena izan zen 10.000 metroko puntu-konparaketan eta bigarrena sailkapen orokorrean. Ander Chamorro altsasuarra (Lagunak) 14.a sailkatu zen. Eta gizonezkoen senior mailan Eduardo Ramirez (Amaya) egitarretarra 7.a sailkatu zen eta Unai Baztan (Amaya) altsasuarra 12.a.

CBASK-en denboraldi bukaerako festa bihar Altsasun

SASKIBALOIA Goizeko 11:00etatik aurrera, Zelandin. Naiara Diez, Asier Pazos eta Beñat Katarain egongo dira

Altsasuko CBASK saskibaloitaldeak ikasturte bukaerako festa antolatu du, 7 eta 13 urteko haurrei begira. Bihar, larunbatean, goizeko 11:00etan hasiko da ekitaldia eta lehenik eta behin gaztetxoendako jokoak egongo dira Zelandi kiroldegian. Saskibaloia ezagutzeko primerako aukera izango da.

Ondoren, 12:30ak aldera, hiru gonbidatu oso berezi hurbilduko dira Zelandi kiroldegira: Naiara Diez Loitek Gernika saskibaloitaldeko jokalarialtsasuarra, Asier Pazos errugbi jokalarilakuntza-



Naiara Diez bere klubera itzuliko da.

rra, Ampo Ordizia taldekoa, eta Beñat Katarain mendi korrikalari lakuntzarrak, Euskal selekzio kidea dena. Beraien egunerokoaren berri emango dute solasaldian. Puntako hiru kirolari sakandar hauekin egoteko eta galderak egiteko aukera izango dute bildutakoek.

CBASK, zortzigarrena

Autonomia Arteko 2. mailako denboraldia despeditu da. Altsasuko CBASK saskibaloitaldeak 7. eta 8. postua erabakitzeke partida jokatu zuen larunbatean Larraona A taldearen kontra Iruñean, eta partida oso lehiatua, hiru tanto eskasengatik galdu zuen CBASK taldeak, 76 eta 73. Hortaz, Autonomia Arteko 2. maila 8. postuan despeditu du maila honetan aurten debutatu duen CBASK taldeak.



Sergio Garcia de Eulate Iruñeko kaleetan korrika. UTZITAKOIA

Sergio Garcia de Eulate eta Felix Benjumea primeran

TRIATLOIA Half Triathlon Iruñean 49.a sailkatu zen Garcia de Eulate eta Lisboako Ironmanean Benjumea 42.a

Iruñea triatleten hiriburu bilakatu zen larunbatean, Half Triathlon Iruñea Erronka jokatu baitzen, euripean. Allozko urtegian 1,9 km-ko igeriketa proba osatu eta gero, bizikleta hartu eta Iruñera jo behar izan zuten triatletek (85 km), bukaeran Iruñeko erdigunean 19,5 km-ko korrikaldia egiteko. Eneko Llanos azkarrena izan zen, hiru ordu eta hiru laurdeneko lan gogorraren ondoren (03:44:06). Emakumezkoetan, Anna Noguera izan zen azkarrena (04:17:13). 1.200 triatleta zeuden izena emanda eta 959k lortu zuten proba bukatzea.

Sakana Triatloi Taldeko Sergio Garcia de Eulate oso fin ibili zen eta 49. postuan iritsi zen helmugara (04:17:13). Bere kategorian, 35 eta 39 urte arteko mailan, zazpigarrena sailkatu zen altsuasuarra. Gorka Acebesek 69. postuan gurutzatu zuen helmuga (4:25:26), Hiruki Trikideak tal-


deko Mikel Astiz 120.a sailkatu zen (04:34:03) eta bere taldekide Jose Ignacio Mikeo 189.a (04:41:25). Bukatzeko, Sakana Triatloi Taldeko Jon Iturriozek lan oso txukuna egin zuen eta 245.a iritsi zen (04:47:17). Azkenean, Sakana Triatloi Taldeko Mikel Lakuntzak eta Isidro Asurabarrenak ez zuten proban parte hartu.

Benjumea 42.a Lisboan

Sakana Triatloi Taldeko Felix Benjumea, aldiz, Lisboako 70.3 Ironmanean lehiatu zen. 1,9 km igerian, 90 km bizikletan eta 21,1 km korrika osatu behar izan zituen. Bikain aritu zen altsuasuarra eta lau ordu eta ia 40 minutu behar izan zituen proba bukatzeko (04:39:01). Helmugara 42.a iritsi zen, eta bere mailan, 40-44 urteen arteko adin tartean, seigarrena sailkatu zen. Ruedi Wild izan zen garailea (03:50:10).

Altsasuko BTT: izena eman

BTT Barranka Txirrindularitza Taldeak antolatutako XXIV. Altsasuko BTT Zeharkaldia ekainaren 9an jokatu da, goizeko 9:00etatik aurrera. Proba ez lehiakorra da, eta bi aukera daude: 40 km-ko proba laburra edo 52 km-ko luzeagoa. Izena ematea zabalik dago ekainaren 7ra arte www.barrankatt.com web gunean.



Juniorrak: Jon Gilen lehen garaipena

TXIRRINDULARITZA Larunbatean Zumaiaiko lasterketan txapelduna izan zen Lizarten dabilen lakuntzarra eta igandeko Elgoibarko proban hirugarrena izan zen, Aitor Alberdiren atzetik.

Nafarroako selekzioarekin konbokatuta ez zeuden juniorrak larunbatean Zumaiaiko lasterketan eta igandean Elgoibarkoan lehiatu ziren. Larunbatean Memorial Joxe Mari Korta lasterketa jokatu zen Zumaian (91,5 km) eta junior mailan eta Lizarte Ermitagaña taldearekin bere lehenengo garaipena lortu zuen Jon Gil txirrindulari lakuntzarra (02:26:14). Lakuntzarra bikain aritu zen, lasterketa primeran irakurtzen jakin zuen eta bakar bakarrik iritsi zen helmugara. 28 segundo atera zizkion Bellota taldeko Haritz Chicori.

Hurrengo egunean, igandean, XXXIX. Elgoibarko Hiria Sarian aritu ziren juniorrak. Lasterketa oso mugituan azkenean Ampo taldeko Iker Barandiaran gailendu zen (02:12:59). 2 segundo atera zizkion Sakana Group-Aralar taldeko Aitor Alberdi arbizuarrari eta bezperan Zumaiaiko proba irabaztetik zetorren Jon Gili. Inhar Astitz (Sakana Group) 15.a sartu zen, Mikel Arretxe (Beola) 20.a, Mikel Lizasoain (Sakana Group) 27.a, Urko Gorriti (Sakana Group) 37.a eta Unax Miranda (Sakana Group) 50.a.

Arrieta eta Mintegi bikain Nafarroako selekzioarekin

Nafarroako selekzioarekin larunbateko taldekako erlojupekoa irabazi zuten eta igandeko lasterketan Igor Arrietak tartekako helmugan saria eta Mintegik borrokalaritasunaren saria lortu zituzten

Larunbatean Nafarroako junior mailako selekzioak Valladolideko Federazio Trofeoan hartu zuen parte. Hautatzaileak Sakana Group-Aralar taldeko Igor Arrieta eta Burunda klubeko Quesos Albeniz taldeko Iker Mintegi eta Unai Aznar deitu zituen, Ion Jurio, Nikolas Agirre eta Diego Uriarterekin batera. Selektzioa ikusgarri aritu zen eta larunbatean La Cisterna herrian



Jon Gilek junior mailako lehen garaipena lortu zuen. UTZITAKOIA

hasi eta Viana de Cegan despeditu zen taldekako 17,5 km-ko erlojupekoa irabazi zuen, Euskadiko selekzioaren eta Victor Sastre Fundazioaren aurretik.

Igandean, 115 km-ko lasterketa jokatu zuten. Iker Mintegi, Unai Aznar eta Igor Arrieta oso aktibo egon ziren, proban tarteka sortu ziren ihesaldi guztietan parte hartu baitzuten, oso lehiakor. Azkenean Igor Arrieta 12.a sailkatu zen, Unai Aznar 30.a eta Iker Mintegi 72.a. Igor Arrietak tartekako helmugan saria lortu zuen eta Iker Mintegik tartekako helmugena eta lehiakortasunarena.

Kadeteak: sakandarrak Eibarren

Igandean kadeteen tropelak Eibarko Ikolan Sari Nagusia jokatu zuen (68 km). Tropel nagusia batera iritsi zen Eibarko helmugara eta esprintean erabaki zen proba. Donosti Berri taldeko Iñaki Errazkin gailendu zen (1:41:00). Top-20an, Burundako Quesos Albeniz taldeko Sergio Lopez 11.a eta Sakana Group-Aralar taldeko Aimar Tadeo 15.a sailkatu ziren. Jon Erdozia (Sakana G.) 26.a, Oihan Etxeberria (Q. Albeniz) 35.a, Mikel Unzilla (Q. Albeniz) 69.a eta Jon Chamorro (Q. Albeniz) 77.a.



Nafarroako junior mailako selekzioko kideak, elkar agurtzen. NAFARROAKO FEDERAZIOA

IRURTZUN TXAPELKETA

EMAITZAK: XXII. IRURTZUN-ARAKIL

Arribillaga-Goikoetxea / Garcia-Markaida

22-11

Azkune-Lazkoz / Ugalde-Azpiroz

17-22

Ruiz de Larramendi-Azkarraga /

Yaniz-Redin

22-21

Zabala-Mujika / Orbegozo-Zurdo de

Cardenas

22-18

Santxo-Urruzola / Astiz-Cordon

22-11

EMAITZAK: EMAKUMEEN D. NAGORE

Maite Ruiz de Larramendi - Elizalde

18-10

PARTIDAK: XXVII. IRURTZUN-ARAKIL

GAUR, OSTIRALEAN, ETXARRENEN

18:30 Promesak: Ruiz de Larramendi-

Azkarraga / Murua_Oliden

19:15 Seniorrak: Espinal-Aldabe /

Salaberria-Mariekurrena

BIHAR, LARUNBATEAN, IRURTZUNEN

10:00 Promesak: Osa-Odrizola /

Zabala-Mugika

10:45 Promesak: Olaetxea-Apezetxea /

Ugalde-Azpiroz

11:30 Telletxea-Artola / Arribillaga-

Goikoetxea

Irurtzun-Arakil Pilota Txapelketa aurrera

Gutxika aurrera doa gizezkoen XXVII. Irurtzungo eta Arakilgo Pilota Txapelketa. Puntako pilotari afizionatuak lehiatzen ari dira bertan. Gaur, ostiralean, Etxarrenen, promesen eta seniorren partida bana egonen dira jokoan eta bihar, larunbatean, Irurtzunen, promesen mailako hiru partida. Asteburu honetan I. Emakumezkoen Domingo Nagore Memorialeko partidari ez da jokatu. Jakina denez, Irurtzun eta Arakilgo Txapelketako finalak Irurtzungo Trinitateko festetan jokatu dira.

MENDIA Triku mendi martxa igandean izanen da

Ekainaren 30ean jokatu da Triku Trail mendi lasterketa, Etxarri Aranazko kanpinean (20 km, 1.400 m desnibel +). Bada, mendi ibilbide hau ezagutu nahi dutenendako, igandean, maiatzaren 26an, Triku Mendi martxa antolatu du Triku Trail Kirol Elkarteak, goizeko 8:00etan Etxarriko kanpinetik abiatuko dena. Ibilbidea aurreko larunbatean egitekoa zen, baina eguraldi txar-rarengatik igande honetara atzeratu dute.

Antolatzaileek argi utzi dute oinezko ibilaldia izanen dela, eta Lizarrustin atsedendia egingo dutela gosaltzeko. Besteak beste, Lizarrusti, Txaradigorri eta Fagamendi gaudituko dituzte.

Ezkurdiak ezin du brontzeagatik lehiatu

PILOTA Aurrelari arbizuarrak eskuko mina dauka eta ezingo du Elezkanoren kontra igandean jokatzekoa zen partidari aritu. Araudian atzerapenik aurreikusten ez denez, Buruz Buruko 3. postua Elezkanorendako izango da eta 4. postua Ezkurdiarendako

Joseba Ezkurdiak eta Danel Elezkanok Buruz Buruko hirugarren postua erabakitzekeo partida jokatu behar zuten igandean Tolosako Beotibarren, baina partida hori ezingo da jokatu, aurrelari arbizuarra eskuko minarekin dagoelako. Horrela jakinarazi zion Aspe enpresak EPEL edo Esku Pilota Enpresen Ligari. Buruz Buruko Txapelketako araudiak ez du 3. eta 4. postuak erabakitzekeo partidako atzerapenik aurreikusten, eta, hortaz, pilotariren batek ezin badu partida jokatu, galdutzat emango zaio. Beraz, araudiari kasu eginez, Elezkanok II.a izango da Buruz Buruko Txapelketako 3. sailkatua eta Ezkurdiak laugarrena.

Nolanahi ere, Tolosako jaialdia ez da bertan behera geratu. Ezkurdiaren eta Elezkanoren arteko partidaren ordez, bikoteakoko partida bikaina antolatu dute: Altuna III.ak eta Martijak Olaiola II.a eta Mariezkurrena II.a izango dituzte arerio.

Aztoratuta

Joseba Ezkurdiak aurreko larunbatean Buruz Buruko finalerdia jokatu zuen Mikel Urrutikoetxearen kontra Bilboko Bizkaia pilotalekuan, 1700 pilota zale ingururen aurrean. Dirua Ezkurdiaren alde atera zen, 100



Finalerdia galdu izanari 3. postuagatik ezin lehiatu izana gehitu zaio Ezkurdiari. ASPE

80ri. Parez pare hasi ziren bi pilotariak, baina launako berdinketatik aurrera lehia aldatu zen eta Mikel Urrutikoetxea izan zen protagonista nagusia. Bizkaitarrak ez zuen partida borbila egin, baina Ezkurdiak baino hobe aritu zen.

Pilotazaleek partida gogor eta ikusgarria espero zuten, baina ez zen hala izan. Erritmo oso altuan jokatu zuten, eta akats nabarmenak egin zituzten biek. Hasieran bikain aritu zen Ezkurdi, horma bikoetan maisu, baina Urrutiren defentsa sendoa

izan zen. Launako berdinketatik aurrera aldatu zen partida. Pare bat tanto polemikoetan, traba egin zion Urrutik Ezkurdiari, epaileek ez zuten ezer esan eta bere onetik atera zen arbizuarra. Horrek partida guztia baldintzatu zuen, bukaeran arbizuarrak onartu zuen bezala. "Aztoratuta ibili naiz tarte horretan eta garesti ordaindu dut, gero alferrik izan baita atzetik aurrera egitea" azaldu zuen. Horrela, Urrutik alde handia atera zuen markagailuan, 14 eta 4, 10 tantotako takada, tanto motzetan, gehiegi

nekatu gabe baina merezita. Sakea ongi egin zuen eta tantoa bukatzen asmatu zuen.

Bolada ona eusten ez zuen jakin Ezkurdiak lasaitu zen, amorruta alde batera utzi eta takada ederra lortu zuen. 16 eta 12 gerturatu zen markagailuan. Tarte horretan ez zen fin ibili bizkaitarra, akats nabarmenak izan zituen. Aldiz, ordura arteko jokorik onena erakutsi zuen arbizuarrak. Baina ez zuen bolada on hori eusten jakin. Urrutik ongi asmatu zuen atsedendak kudeatzen eta une erabakigarrietan finago ibili zen.

20 eta 12 aurreratu zuen Urrutikoetxea eta Ezkurdiak arrisku handiak hartu zituen azken txanpa horretan. Horrela, bi tanto ikusgarri lortu zituen arbizuarrak, 20 eta 14ra gerturatuz, baina sake bat ezin izan zuen erantzun eta azkeneko tantoa ere ezin izan zuen ongi eman. Azkenean 22 eta 14 gailendu zuen Urruti. Bizkaitarra oso kontentu zegoen, bere hirugarren finala jokatu duela. Danel Elezkanok 12 tantotan utzi zuen Iker Irribarria izango du aurkari.

Zapore txarreakin

Aldiz, galtzeko moduagatik triste dago arbizuarra. "Nire mailaren erdirik ere ez dut eman, eta zapore txarreakin noa etxera. Galtzea gauza bat da, baina entrenamenduetan eman dudana maila eskaini ezinak sortzen dit amorruta. Ez dut eroso jokatu, gozakaitz aritu naiz, eta itxaron egin beharko dut Buruz Buruko lehen finala jokatu ahal izateko" adierazi zuen Ezkurdiak partida bukaeran. Eta ezingo du arantza atera, eskuko minarekin dagoenez, ezingo baitu 3. postuagatik borrokatu.

Andra Mari Nafarroako Sokatira Txapelketako lider kadeteetan

SOKATIRA Bihar Kadeteen Nafarroako 4x4 Sokatira Txapelketako 3. jardunaldia eta finala jokatu dira

Aurreko larunbatean Kadeteen Mailako Nafarroako 4x4 Sokatira Txapelketako (280 kg) bigarren jardunaldia jokatu zen Antsoainen. Guztira 7 talde ari dira parte hartzen txapelketan, tartean Etxarri Aranazko Andra Mari

ikastolatik sortutako taldeak, eta Araxes, Berriozar eta Antsoain klubetatik sortutakoak.

Atzera ere, Andra Mari B taldea izan zen talderik onena (7 puntu), Antsoain A (6 puntu) eta Berriozar A (5 puntu) taldeen aurretik.

Berriozar B laugarrena eta Antsoain B bosgarrena izan ziren, biak 3,5na punturekin, Andra Mari A seigarrena (1,5 puntu) eta Araxes azkena, (1,5 puntu). Bi jardunaldiko puntuak batuta, Andra Mari B doa lehena 14 punturekin, Antsoain A eta Berriozar A bigarrena eta hirugarrena dira, biak hamar na punturekin, eta Antsoain B da laugarrena, 9,5 punturekin. Berriozar B da urrena (6,5 puntu), Andra Mari A (3 puntu) eta Araxes (3 puntu) taldeen aurretik.

Bihar erabakiko da txapela

Bihar, maiatzaren 25ean, larunbatean, hirugarren eta azken jardunaldia eta finala jokatu dira, 17:00etatik aurrera, Berriozarko Eguzki plazan. Hasieran hirugarren jardunaldia jokatu da, eta txapelketako hiru jardunaldien puntu batuketa egin ondoren, sailkatutako lehen bi taldeek jokatu dute Kadeteen Nafarroako 4x4 Sokatira Txapelketako finala. Espero dezagun Andra Mari final horretan egotea eta txapela Sakanara ekartzea.

Urbasa, etxe ondoko zinema platoa

'Akelarre' filma grabatu dute egunotan Urbasa parke naturalean. Gainera, iaz mendizerran filmatutako 'The Sisters brothers' filmaren emanaldia izanen da Iortia kultur gunean maiatzaren 31n, ekainaren 1ean eta 3an

SAKANA

Sorginak, akelarreak eta sorgin ehiza. XVII. mendean Euskal Herrian izandako sorginkeri auziak daude *Akelarre* filmaren oinarrian. Gizonak itsasora joan dira, eta neskek festa bat egiten dute basoan. Rostegi epaileak herrialdea purifikatzeko sorginak izateagatik salatzen eta atxilotzen ditu. Epaileak bere karrerako auzi garrantzitsuena dela uste du, eta akelarreei buruz dakiten guztia ezagutzeko edozer gauza egiteko prest dago. Egunotan *Akelarre* filmaren sorginek Urbasan hainbat eszena grabatu dituzte. Gainera, Altsasuko hainbat gaztek parte hartu dute.

Ez da parke naturalean grabatutako film bakarra. 2017an *The Sisters brothers* filma grabatu zuten bertan, eta hainbat zinema jaialditik pasa ondoren, Altsasun proiektatuko dute maiatzaren 31n, ekainaren 1ean eta 3an, Iortian.

Agertoki naturala

Duela mendi erdi baino gehiago filmatu zuten lehenengo filma Urbasan. 1952. urtea zen, zuri beltzean grabatzen zen, eta Amayaren istorioa kontatu zuten. Ondoren, 1970ko hamarkadan, Hollywood-eko ekoizleek Urbasaren plato naturala erabili zuten,



Akelarre filmaren eszena batzuk filmatu dituzte egunotan Urbasan. DAVID HERRANZ

besteak beste, *Patton*, *Cromwell* eta *Robin and Marian* film ospetsuak filmatzeko. Lau hamarkada pasatu behar izan dira AEBko ekoizpen bat Urbasara itzultzeko: Jacques Audiard zinemagilearen *The Sister brothers* westerna. Gainera, duela gutxi mustu zuten *Napardeath* filmaren azken bataila Urbasan grabatu zuten iaz.

Besteak beste, Urbasa Baskoien erreinua, Belgikako gerra zelaia, Ingalaterrako basoak edo AEBko Oregon estatuko herrixka bat izan da. Hamaika aurpegi izan

ditu parke naturalak zineman. Ekoizpen gehienetan filmaren hainbat eszena grabatzeko erabiltzen badute ere, beste batzuetan filmaren gertaera guztia mendilerroan gertatzen da. *Robin and Marian* filmaren kasua da. Robin Hood pertsonaiaren Nottingham herria Artaxoako harrizetan irudikatu zuten, baina Urbasan filmatu ziren filmaren mendiko eszena guztiak. Sean Conery eta Audrey Hepburn aktoreak ziren protagonistak.

Olaztin 50 urte baino gehiago dituztenek gogoratuko dituzte

1969. urtean iritsi ziren tanke amerikarrez eta alemaniarrez, gerrate kamioiez eta pertxeroez beteta iritsitako hiru trenak. Sus-toa hartuko zuten batzuk, baina Urbasan grabatzen ari ziren *Patton* filmerako atrezzoak besterik ez zen. Belgikako Ardenas bataila irudikatu zuten mendilerroan.

Ikazkin ezagunena

1984. urtean Montxo Armendarizek *Tasio* filma egin zuen. Tasio ikazkinaren bizitza kontatzen du filmak, mendiko azken ikazkinaren bizitza, hain zuzen ere, eta Urbasan eta inguruko haranetan kokatzen da istorioa. Patxi Bisquert aktorea Tasio zen, eta Armendarizek kontatu bezala, filmaketa hasi baino askoz lehenago iritsi ziren Urbasara bertako jendearen bizimodua ongi ezagutzeko. *Tasio* oso arrakastatsua izan zen, eta oraindik bada.

Ondoren, Urbasako paisaiak beste hainbat pelikuletan agertu da, esaterako, Monica Lagunaren *Tengo una casa* (1996), Antonio Hernandezen *Los Borgia* filmean (2006), Imanol Rayoren *Bi anai* eta Asier Altunaren *Bertsolari* filmetan (2011) eta *Zipi y Zape y la isla del Capitan* Oscar Santosen ekoizpen handian (2015). Gainera, 2007an Lizarragako portuan *Eutsi!* euskal filmaren hainbat sekuentzia grabatu zituzten, Tour-ra pasatuko bailiran, eta 2009an Beriainen *Biutiful* filmarendako hainbat plano grabatu zituzten.

John C. Raily eta Joaquin Phoenix aktoreak 2017an Urbasan egon ziren *The Sisters Brothers* filmatzen. Datorren ostegunean, ostiralean eta igandean, -19:00etan, 22:00etan eta 19:30ean, hurrenez hurren-, Altsasuko Iortia kultur gunean Oregongo herrixka batean ambientatuko westerna

proiektatuko dute. Urrea bilatzen duten bi anaien istorioa kontatzen du filmak.

Zonbi karlisten, momia nafarren eta txirindulari post-apokaliptikoen istorioaren azken eszena edo gudua grabatu zuten Urbasako zelaietan iaz. *Patton* eta *Cromwell* filmak grabatu zuten tokia aukeratu zuen Katiuxa ekoiztetxeak *Napardeath* filmaren eszena epikoa grabatzeko. Filma duela gutxi mustu zuten eta Euskal Herriatik emanaldiak egiten ari dira.

Urbasan ere grabatu dute postproduktzioan dagoen *El silencio de la ciudad blanca*-ren hainbat eszena.

Sakandarrak

Akelarre filma grabatu dute asteazkenean eta ostegunean Urbasan. Gainera, protagonisten ordezkoak Altsasuko hainbat gazte izan dira. Filmaketekin batera ekoizpenaren langileak etortzen dira eta gehienetan bertako jendearen laguntza eskatzen dute ere. Hortaz, figuranteak bilatu ohi dituzte. Akelarre filmerako Euskal Herrian casting erraldoia egin zuten, eta *The Sisters brothers* filmean jendea bilatu zuten Altsasun. *Napardeath* filmerako ere filmaketan parte hartzeko jendea gonbidatu zuten.

Nafarroako Gobernuak Navarra Film Comision sortu zuen 2009an ekoizpenetan lagutza eskaintzeko. Gainera, enpresek beherapen fiskalak dituzte Nafarroan grabatzeagatik.

EKOIZTETXEK PELIKULETAN PARTE HARTZEKO FIGURANTEAK BILATU OHI DITUZTE

Dantzari txikiak Altsasun bilduko dira, igandean

Dantzari Txiki eguna ospatuko dute igandean Etorkizuna dantza taldeko dantzariak. Ospakizunerako Urretxuko dantzariak hartuko dituzte altsasuarrek. Etorkizuna dantza taldeko bost taldek parte hartuko dute dantzarien egunean, 60 bat dantzari ariko dira.

Eguna 11:00etan hasiko da. Dantzari taldeak Iortia zabalgu-

nean bilduko dira eta dantza-riendako, musikariendako eta begiraleendako hamaiketako egongo da. 12:00etan kalejira egingo dute herrian zehar eta dantza taldeek hiru geldialdi egingo dute emanaldiak eskaintzeko. 13:00etan Foru plazara iritsiko dira eta eguerdiko saioa egingo dute.

Bazkalostean, 16:30ean, Altsasuko plazan erromeria hasiko da. Eguraldi txarra eginez gero dantzaldiak Burunda frontoian egingo direla jakinarazi dute.

Sagaseta omendua

Larunbatean Pirinioetan Dantzan - Mutildantza Eguna 2019 ospatu zuten Arinzkunenen, Baztanen, eta Euskal Dantzarien Biltzarrak Miguel Angel Sagaseta Urdaingo apaiza omendu zuen dantzen inguruko ikerketa sakona egiteagatik.

Luzaideko bolantak, Beskaitzeko Oinak Arin eta abar dantzen erakustaldia egin zen eta, ondoren, Sagasetari aitortzen egin zioten.



JUAN MARI ONDICOL YABEN



Inauterien 1go argazki lehiaketaren irabazleak: J. Busto, I. Rodriguez eta M.A. Albarran.

Momotxorroak, odola eta sua inauterietako protagonistak

Altsasuko Inauterietako lehenengo argazki lehiaketa antolatu dute aurten; ostiralean sariak banatu zituzten

ALTSASU

Momotxorroak, odolaren errituala, irteeraren indarra eta plazako akelarrearen sua dira Altsasuko herri inauterietan argazkilariek gehien bilatzen dituzten irudiak. Aurten lehenengo aldiz herri inauterien batzordeak eta Altsasuko Udalak inauterien argazki lehiaketa antolatu dute. Izan ere, batzordeko kideek azaldu duten bezala, urtero argazkilarik asko ikusten dituzte momotxorroen artean, baina argazki horiek gero ez dira publikora iristen. Lehiaketaren bidez inauterien irudi esanguratsuenak herriari erakutsi nahi dizkiete. Inauterien aurretik egiten den ikastetxeen arteko erakusketan ikusgai egongo dira lehiaketara aurkeztutako 39 lanak.

Sari banaketa

Aurreko ostiralean herri inauterien lehenengo argazki lehiaketaren sari banaketa emanaldi xumea egin zuten. Hiru sari egon ziren: lehenengo saria 200 eurokoa, bigarrena 120 eurokoa eta hirugarren 80 eurokoa. Maria Angeles Albarran barañaindarrak irabazi zuen lehenengo saria Indarra argazkiarekin, bigarrena Mañerura joan zen eta Ivan Rodriguezek irabazi zuen. Hirugarren saria Jon Busto altsasuarrak irabazi zuen Gorri lanarekin. Herriko argazkilariek, Joseba Salegi zinemagileak eta Patricia Paats margolariak osatu zuten epaimahaia.

Momotxorroak dira hiru argazkietan pertsonai nagusia.

Momotxorro bat indarraren keinuea eginez izan da argazki irabazlea. Maria Angeles Albarranek frontoian egin zuen argazkia. Interneten Altsasuko inauterietako argazkiak ikusiak zituen eta inauterietara lehenengo aldiz etortzea erabaki zuen. Atentzioa deitzen zion jendea odolez zikitzea, "nahiko zirrargarria da". Argazkian jendea odolez zikinduta ikustea zen, beraz, barañaindarraren helburua. Hala ere, "denborarekin ez bazoaz" argazki politak ateratzea zaila dela esan du, "jende asko dago".

Bigarren sariaren irabazlea Ivan Rodriguez da. 2017an etorri zen lehenengo aldiz inauterietara, eta iaz errepikatzea erabaki zuen. Inauteriak ezagutzen zituzenez "oso argi" zeukan egin nahi zuen argazkia: "momotxorroaren silueta bat fondo laranjarekin". Ezin izan zuen argazkiak egiten nahi bezala aritu eta "plazara iritsi ginenean jendez beteta zegoen". Argazkiak egiteko inauteriak aukera asko ematen dituela esan du: "txoko bakoitzak gauza desberdinak eskaintzen ditu".

Altsasuar gutxi aurkeztu dira, batzordeko kideen esanetan. Haietako bat Jon Busto izan da, hirugarren irabazlea. Inauteriak "kanpotik ikusi nuen, odolaren errituala eta irteera turista bat bezala ikusi nituen". Argazkiak egiteko "bi edo hiru ideia" bazituen. Eta horietako bat egitea lortu zuen. Lehiaketara aurkezte "ilusioa" sortzen duela esan du, eta herrikideak argazkiak egitea eta aurkeztera gonbidatu ditu.

Musika, dantza, bertsoa eta eskultura plazan

'Esku harriak, Oteizaren (h)aria' ikuskizuna izanen da igandean, 19:30ean, Etxarri Aranazko Zelai berriyen. Hainbat diziplina uztartzen ditu emanaldiak, tartean bertsolaritza, eta bertsolaria Eneko Lazkoz etxarriarra izanen da

ETXARRI ARANATZ

Oteiza artistaren iruditeria oinarri hartuta, MugMus laborategiak espazio eszenikoan "dantza, musika, hitza, bertsolaritza eta eskultura-eszenografia" diziplinak uztartzen dituen *Esku harriak, Oteizaren (h)aria* ikuskizuna sortu du. Igandean, 19:30ean, Etxarri Aranazko Zelai berriyen emanaldia egingen dute, Musika plazan zikloaren barruan. Eneko Lazkoz etxarriarra izanen da bertsolaria.

Oteiza artista da *Esku harri* ikuskizunaren erdigunea. "Pertsonalki erakarri nauen pertsona bat da. Euskal artista hegemonikoena izan da, eta ez digute bere berririk eman. Gaur egun eta azken hamarkadetan itzala handia izan duela konturatu ginen, eta berarengana hurbildu naiz". Beñat Ralla ikuskizunaren sortzailea da. Ginebrara musika eta mugimendua uztartzen zituen pedagogia ikastera joan zen, eta ikasketetan hainbat eszenaratze egin behar zituen.

Oteizaren inguruan irakurtzen eta dokumentatzen hasi zen, eta Master Amaierako Lanerako 15 minutuko lan bat prestatu zuen. Euskal Herrira itzuli zenean sormenatarako diru laguntzetera aurkeztu zen eta bere proiektua aukeratu zuten. Beraz, lana "modu sendoago" garatzeko aukera izan zuen eta MugMus laborategia sortu zuen.

"Artistarekin batera pertsonai bat da Oteiza". *Esku harriak* ikuskizuna artistarengana hurbiltzeko eta "ikasteko prozesu artistiko" bat izan da Rallaren dako. Oteizaren iruditeria ikuskizunean agertzen diren elementuren bitartez agertzen dira. "Oteiza oso artista eklektikoa da. Ez zen lengoiaia batera bakarrik mugatu, nahiz eta eskultura izan zen bere ekarpen nagusia. Obsesio antzeko bat zeukan cromletxeekin, euskal historiaurrearekin, hutsunearekin eta



'Esku harriak' ikuskizunaren kaleko bertsoia Baionan. MUGMUS LABORATEGIA

'ESKU HARRIAK, OTEIZAREN (H)ARIA' ERRONKA "ARTISTIKO-ESTETIKO" BAT DA

bere kutxa metafisiko horiekin, eta hainbat euskal elementuri irakurketa estetiko artistiko bat aitortu zien". Hortaz, Oteizaren iruditeria jorratu nahi zuten, bere iruditeriaren parte den "elementu horiek" bildu dituzte *Esku harri* ikuskizunean: "guretzat herrikoiak diren elementuei erreferentzia berezia egin zien: frontoia, txalaparta, bertsolaritza...". Xalbador bertsolaria asko miresten zuela azaldu du Rallak. Ikuskizuna "erronka artistiko-estetiko bat izan da".

Eneko Lazkoz bertsolaria

Dantza, zuzeneko musika, bertsolaritza eta eskultura diziplinak uztartzen dira, beraz, Esku harriak ikuskizunean. Gainera, lauak modu "orekatuan" uztartzen direla azaldu du Rallak. "Xabi Paia bertsolariak esan zigun lehenengo aldia zela ikuskizun

batean bertsolaritza ez zela gehigarri bat bezala ikusten, hau da, bertsolaritza emanaldia artikulatuta zegoela. Piroppa izan zen guretako. Hori zen gure asmoa".

Esku harriak ikuskizunaren bi bertso daude: antzokikoa eta kalekoa. Antzokikoan bertsolaritza agertzen da, baina ez daude bertsolariarik. Kalekoan, aldiz, herri bakoitzean eta emanaldi bakoitzean bertsolari desberdin bat dago. Beraz, igandean, Etxarri Aranazko emanaldian, Eneko Lazkoz etxarriarra ariko da.

"Emanaldia hasi aurretik azaltzen diogu zein den emanaldiaren egitura eta zein momentu zehatzetan bota behar duen bertsoa. Printzipioz zein neurrikoa izan behar den zehazten saiatzen gara". Erabat inprobisatua da bertsolariaren jarduna. "Bertso bat mugimendu bati botatzea izan daiteke, edo argazki eszeniko bati, edo gerta liteke bertsoa osatzeko azkeneko puntua ematea". Ariketa desberdinak jartzen dizkiete bertsolariari.

Bertsolari guztiak desberdinak direnez, "gure proposamenen nola murtitzen diren polita eta interesgarria da". Bakoitzak bere ukitua ematen dio.

"Ezkilazainak entzuten ikasi nuen errepiketa"

Nafarroako Ezkilazainen IV. Topaketa egingen da larunbatean Lakuntzan. Sortu berri den ezkilazainen elkartearen lehenengo asanblada egiteko baliatuko dute festa. Angel Alegria kanpai jolea lakuntzarra anfitrioi izanen da

Erkuden Ruiz Barroso LAKUNTZA

1 Noiz hasi zinen ezkilak jotzen?

Duela hogeit hamar urte inguru. Lakuntzan ohitura da San Juan bezpera gauean, suteak dauden bitartean, kanpaiak jotzera igotzea. Kanpai joleak zirenak laguntzera etortzen nintzen. Eta horrela hasi nintzen. Igotzen naizenean atea irekita dago eta ikusi nahi duen guztia igo daiteke. Gu pozik, gainera.

2 Eta noiz jotzen dituzu?

San Juan bezperan eta orain arte igandetan eta jaiegunetan mezetara deitzeko eta norbait hiltzen denean abisatzeko jotzen zen. Lan kontuagatik astean zehar ezin dut eta sistema automatiko bat jarri da eta ni ez nagoenean sistema automatikoak jotzen dituz kanpaiak. Baina nagoenean jotzen ditut.

3 Zertarako jotzen ziren ezkilak?

Garai bateko komunikabidea zen. Herrian zerbait gertatzen bazen kanpai joleei abisatzen zitzairen eta beraiek jotzen zutenaren arabera herritarrek zer gertatzen zen bazekiten. Toke ezberdinak zeuden: egunsentian, auzolanera deitzeko, sua zegoelako...



Angel Alegria Lakuntzako kanpai jolea. UTZITAKOIA

4 Nola ikasi zenuen Lakuntzako errepiketa?

Lehen jotzen zutenak entzuten. Hemen errepiketa kanpai handiekin jotzen da eta txikiekin handian jotzen denari jarraitzen zaio. Orduan txikian jartzen ginen eta handiak jarraitzen genituen. Horrela, pixkanaka, ikasi genuen. Doinu desberdinak praktikatzeko ikasten genituen. Indarra baino, trebetasuna behar da.

5 Kanpai joleen anfitrioi izanen zara.

Aurten niri egokitu zait ezkilazainen topaketa antolatzea. Urtero herri batean egiten da eta aurten Lakuntzan egitea erabaki genuen. Laugarren urtea da. Nafarroako kanpai joleak elkar ezagutzeko eta kanpai jotzearen ohitura mantentzeko egiten hasi ginen. Gainera, beste kanpai dorre batzuk ezagutzen ditugu eta beste herri batzuetan jotzen dutena ikusteko eta entzuteko aukera dugu. Lehenengo urtean Artaxonan egin zen, bigarrean Olatzin eta iaiz Allon.

6 Gainera, ekartea sortu duzue.

Bai, eta guztiak gaudela aprobetxatuz lehenengo asanblada egingo dugu. Iruñean batzar bat egin genuen estatutuak sortzeko eta elkartea martxan jartzeko. Bihar karguak zehaztuko ditugu eta elkartea antolatzen hasiko gara. Edonori irekita dago.

7 Zein da elkartearen helburua?

Kanpai jotzearen ohitura mantentzea, gehiago galdetu dadin. Gaur egun ezkila jotzeak ez du modu praktikoa funtzionatzen. Lehen norbait hiltzen zenean, kanpai joleak jotzen zuen eta

horrela herri guztia enteratzen zen. Orain gu etortzen garenerako herri guztiak badaki zer gertatu den. Beraz, modu sinbolikoan edo ohituragatik jotzen da orain. Baina mantentzea garrantzitsua da.

8 Zer antolatu duzue?

Elizaren estalopean 10:00etan bilduko gara. Hamaiketako txiki bat jarriko da eta elkartearen asanblada egingo dugu. Kanpaien inguruko hitzaldi bat egongo da ere. Ondoren, kanpai dorrera igoko gara eta Lakuntzako kanpai joleak ariko gara. Gero nahi duenak bere errepiketa eta doinuak jo ditzake. Aurten ere Amurrioko elkarte bat etorriko da, baita Errioxako kanpai joleren bat etorriko da ere. Nahi duen guztiarendako irekia dago. Jendeak ongi erantzun du.

9 Zenbat pertsona bilduko zarete?

Beste batzuetan bazkarirako 60 bat pertsona bildu izan gara, baina guztiak ez dira kanpai joleak. 40 bat ezkilazain elkartuko gara.

10 Beraz, topaketa hauetan beste herrietako doinuak entzuteko aukera duzue.

Bai. Toke ezberdinak. Leku batzuetan errepiketa egiten da eta beste batzuetan badeoa. Horiak ezagutzeko aukera dugu bilkurretan. Lakuntzan errepiketa jotzen da. Errepiketa ezberdinak zeuden, baina galtzen doaz.

11 Belarriak babesteko zerbait erabiltzen duzue?

Ez dakit belarria kanpaietara egokitu dudana, edo kanpaiak belarrietara ohitu ditudan. Baina ez dut inoiz ezer jartzen.

*Herriko jaiak
alaitu gurekin!*

Kartelak | Egitarauak | Eskuorriak

Foru plaza, 23-1. Altsasu | 948 564 275 | 948 562 107 - gk@gkomunikazioa.eus

